



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA										KODEA: 013379			2019-20	
ARLOA	GAZTELANIA ETA LITERATURA										DATA 2019-9-2				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2				

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	- Bizitza sozial eta kulturalako testuinguruetakoa ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea. - Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea, komunikatzeko eta hainbat egoerataraz egokitzeke. - Hizkuntzaren erabilera soziala aztertzea gogoeta eta kritika eginez. - Hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalei buruz gogoeta egitea. - Literatura-testuak modu autonomoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko.

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	
1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa	
- Repaso de la ortografía básica, acentuación y puntuación. -La palabra: sus clases y aplicación a los textos. - Acercamiento al análisis del texto: tema, resumen, estructura, comentario crítico. -La comunicación literaria. -El discurso oral.	- El enunciado: sus clases. - La oración. Sus clases y aplicación al texto. - Producción de textos sintácticamente bien estructurados. - Lectura de textos literarios seleccionados. Contexto social y cultural de dichos textos. - El discurso oral.	- El texto: sus clases. - La diversidad lingüística. - Semántica aplicada a los textos. -Lectura de textos literarios seleccionados. Contexto social y cultural de dichos textos. - El discurso oral.	

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Irakasleak, material desberdinetan oinarrituta, azalduko ditu unitate didaktikoak. Testuak lantzeko garaian, hasieran testu iruzkinak bideratuta emango die ikasleei. Ikasleak azalpena jarraitu eta ulertu behar du, horretarako ariketak eginez. Horretaz aparte, ikasleak agindutako lanak eta irakurketak egin behar ditu eskatzen zaizkionerako. Tarteka apunteen bidez emango dira saioak, ikasleak metodologia hori praktikatu dezan.	

4	BALIABIDEAK
Testo liburura: Lengua castellana y Literatura 1. ANAYA argitaletxea. Apunteak, fotokopiak, prentsako artikuluak eta hiztegia. Literaturako hainbat testu. Ikus-entzunezko material egokitua.	



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	EBALUAZIO IRIZPIDEAK: - Ahozko eta ikus-entzunezko testua – esparru akademikoko azalpen-testuak, bereziki– hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Curriculumeko edukiei buruz ahozko azalpenak egitea. - Ahozko harremanetan aktiboki eta gogoeta eginez parte hartzea, egoki argudiatuz. - Testu idatziak – esparru akademikoko azalpen-testuak bereziki – hainbat erabilera-eremutan interpretatzea eta balioestea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna aintzat hartzea. - Hizkuntzalaritzaz, literaturaz eta egungo egoeraz testuak idaztea – esparru akademikoko azalpen testuak bereziki –, hainbat erabilera-eremutan baliatzeko, eta aldeztatik aurretik prestatutako eskema bati jarraituz. - Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea, ezagutza soziolinguistikoak erabiliz. - Hizkuntzaren mailen gaineko ezagutzak identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatzerakoan eta norberaren jarduna arautzerakoan. - Euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzen den hizkuntza-terminologia komuna ezagutzea, eta hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan zuzen erabiltzea. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Egiten diren kontrolek notaren gehiengoa balio dute. Eguneroko ariketetan, ikasleei aldeztatik aurretik jakinen gainean jarriko zaie zeintzuk izango dira kalifikatuak. Klaseetan jarrera positiboa eta aktiboa kontuan hartuko da. EBALUAZTEKO TRESNAK: Ebaluazio bakoitzean kontrol azterketa bat egingo da gutxien eta beharrezko arabera beste kontrolaren bat egingo da.
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	Ebaluaketa bakoitzak bere errekonstruzioa izango du. Lehenengo deialdirako beraz, gaitu ez dituzten ebaluaketak soilik egingo dituzte. Lehenengo deialdian gaitu ez dutena, nahiz gai osoa nahiz ebaluazio bakarra izan, hori bera geratuko zaie bigarren deialdirako. Kurtsoko batez besteko nota igo nahi dutenek ekainean egin behar dituzte ebaluazio bakoitzetik aukeratutako gai nagusiak.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379		2019-20	
ARLOA	Euskal Hizkuntza eta Literatura I						DATA		2019-09-02	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X
									BATX 2	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK
1.– Bizitza sozial eta kultureko testuingurueta ahozko diskurtsoak eta diskurtso idatziak ulertzea. Bakoitzaren komunikazio-berezitasunak aintzat hartzea eta haien edukia kritikoki interpretatzea, haiek ulertu ondoren egoera berrietan aplikatzeko. 2.– Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea, komunikatzeko eta hainbat egoeratarako egokitzeko -esparru akademikoan bereziki-, komunikazio-beharrei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko. 3.– Hizkuntzen osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalei buruz gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, testuen ulermena, azterketa eta iruzkinak hobetzeko, eta testu mintzatu nahiz idatziak planifikatzeko, ekoizteko eta zuzentzeko. 4.– Literatura-testuak modu autonomoan irakurri geroztik, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibiltate estetikoak garatzeko. 5.– Euskal literaturaren garai garrantzitsuenen ezaugarri orokorrez gainera, horietako egile eta lanik inportanteenak ezagutzea, literatura-testuak, ahozkoak eta idatziak, ulertzen laguntzeko, eta informazio-iturri egokiak kritikoki erabiliz lan horiek ikasteko.	6.– Literatura-lanak interpretatzea eta kritikoki balioestea, haien arte-izaera osatzen duten elementuak identifikatzea, eta kultura-tradizioarekin eta sortzeko eta jasotzeko gizarte-baldintzekin erlazionatzea. 7.– Erkidegoko errealitate elebiduna aztertzea eta interpretatzea euskararen normalkuntzaren aldeko jarrera aktiboa garatzeko. 8.– Eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aztertzea eta interpretatzea -soziolinguistikako ezaupideek lagunduta-, haiek dakarten aberastasunaren aurrean begirunea eta jarrera positiboa erakusteko. 9.– Informazio-iturriak eta teknologiak autonomiaz, espiritu kritikoz eta jarrera etikoaz erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko, hizkuntza mintzatu eta idatzia bizitza sozial eta kultureko testuinguruetan eraginkortasunez erabili ahal izateko. 10.– Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio-ezagutzak eta -estrategiak erabiltzea, eta norberaren ikasprozesuei buruz gogoeta egitea, ikasteko autonomia garatzeko.

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
25	Diskurtsoen ugaritasuna Komunikazio-egoerako elementuek diskurtsoa nola baldintzatzen duten aztertzea. Azalpen testuak (definizioa). Narraziozko azalpena. Literatura diskurtsoa Ahozko literatura. Herri lirika. XVIko testuak. Hizkuntzari buruzko gogoeta Hizkuntza unitateekin zerikusia duten kontzeptuak sistematizatzea, eta erabiltzea testuak hobeto ulertu eta sortzeko. Erlatibozko perpausak eta p. osagarriak	25	Diskurtsoen ugaritasuna Azalpen testua. Elkarrizketazko azalpena. Literatura diskurtsoa XVIIko testuak Herri-antzerkia. XVIIIko antzerki idatzia. Hizkuntzari buruzko gogoeta Modalizazioa, deixia, erregistroak. Mendeko perpausak: helburuzkoak, kausazkoak, kontzesiboak, konparatiboak Hizkuntzaren dimentsio soziala Inguruko hizkuntzekiko ukipen-fenomenoak	25	Diskurtsoen ugaritasuna Argudio testua. Literatura diskurtsoa XX. mende hasiera arteko poesia. Hizkuntzari buruzko gogoeta Antolatzaileak. Hizkuntzaren dimentsio soziala Inguruko hizkuntzen ezaugarriak euskararekin alderatzea.



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Ikasleak egitekoak:

- Irakaslearen azalpenak aktiboki jarraitzea.
- Agintzen zaizkion bakarkako lanak bere kabuz egitea (ahozko nahiz idatzizkoak), horretarako behar duen informazioa bilatuz. Lan horiek arduraz eta agintzen denerako eginak izatea.
- Talde txikitan (2-3 lagun) egin beharreko lanetan arduraz aritzea, ekarpenak egiteko. Lan osoaren erantzule delako jarrera izatea.
- Talde handitan (5-8 lagun) egin beharrekoetan ere ekarpenak egitea, lan osoaren erantzule delako jarreraz.
- Egindako lanetakoren bat hobeto egin dezakeenetan irakasleak esandakoari jarraituz, hura berriro egitea.

Irakasleak egitekoak:

- Beharrezko azalpenak ematea. Ez da testu-libururik erabiliko.
- Ahozko nahiz idatzizko hainbat iturritatik testuak lortzea (egunkariak, irratia, telebistako iragarkiak...) gelan entzun/ikusi/irakurri eta aztertzeko. Azterketa horietatik abiatuz, ereduak eman eta ikasleei berdintsuak eginaraztea.
- Ikasleen lanak zuzentzea, zuzenketari jarraituz ikasleak egindako lana hobeto egiteko jarraibideak izan ditzan.

4

BALIABIDEAK

Ez dago testu-libururik. Testuak eguneroko testu errealek izango dira (publizitatezkoak, egunkarietan ageri direnak, internetez lor daitezkeenak).

Antzerki, bertso eta poesia hautatuak banatuko dira.

Ikus-entzunezko materiala.

5

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**EBALUAZIO IRIZPIDEAK:**

- Ikasleak badakien gai nagusia eta bigarren mailakoak bereizten. Laburpen egokiak egiten dituen. Erregistro egokia erabiltzen duen.
- Badakien bere iritzia ematen arrazoibideetan oinarrituta. Argia eta koherentea den.
- Osagai inplizituak ondorioztatu eta baliatzen dituen. Komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatzen dituen.
- Ea errespetatzen dituen zuzentasun arauak. Saihesten ote dituen ukipen-egoeratik sortutako kalkoak.
- Gelan landutako literatura-mugimenduetako egile eta lanak ezagutzen dituen, eta dagokien testuinguru historiko eta kulturean interpretatzen badakien.
- Baliatu dituen informazio-iturrietan lortutakoak erabilera sortzailea egiten duen, komeni zaiona bakarrik erabiliz, iturri desberdinetako informazioak elkarren artean konparatu eta osatuz, eta besterik gabeko kopia soila egin gabe.
- Sortzen dituen testuek betetzen dituzten agindutako gutxienekoak (komunikazio egoerari egokitzea, genero ezaugarriak, komunikazio asmoa betetzea...)

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

Ikasleak egiten dituen lan guztien batez bestekoak osatuko du ebaluazio bakoitzeko notaren laurdena. Gainerako hiru laurdenak azterketan ateratako kalifikazioa izango dira.

Ikasturte amaieran izango du ikasleak nota igotzeko aukera, urte osoko gaiei buruzko azterketa baten bidez.

Azken notaren biribiltzea irakaslek xedatuko du.

EBALUAZTZEKO TRESNAK:

Ikasleak egin eta irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrol txikiren bat ere izan daitekeen, lan bakoitzaren balio bera izango duena azken emaitzan. Ebaluazioko notak gorde egiten dira 1. deialdira arte. 2. deialdian, gai osoaren azterketa egin beharko da.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan.

Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira.

1. eta 2. deialdietako azterketen bidez gaindi daiteke ikasturtea.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA		OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA										KODEA: 013379			2019-20	
ARLOA		GORPUTZ HEZKUNTZA										DATA			2019-10-03	
MAILA	DBH 1			DBH 2			DBH 3			DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUEN ADIERAZITA
1.-Garapen pertsonalerako, bizi-kalitate eta osasuna hobetzeko, kirolak duen eragina ezagutzea. 2.-Norberak bere gorputza onartzea eta bere gorputzarekin ondo sentitzea. 3.-Norberaren egoera fisikoa hobetzeko kirola eta mugimen-ekintzak praktikatzeko duen eragina ezagutzea eta baloratzea. 4.-Tasun fisikoaren garapenean oinarrituz, autonomiaz gorputz prestaketa programatzen ikastea.	5.-Lagunen artean garatzeko, jolas eta kirol desberdinak programatzen ikastea. 6.-Kirol-ekintza anitzen berariazko gaitasun desberdinak lantzen ikastea. 7.-Gorputzaren adierazkortasunaz jabetzea eta erabiltzen ikastea 8.- Jarduera fisikoak edo kirol-jarduerak egitean lesioak edo larrialdi-egoerak gertatuz gero eman beharreko lehen laguntzak identifikatzea eta baliatzea

2		EDUKIEN ENBORALIZAZIOA	
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa
6	Beroketa Beroketa orokorraren eredu ezberdinak aztertzea. Beroketa espezifikoaren aplikazioak.	7	Prestaketa fisikoa Ikasleak aukeratu dituen 8 probetatik, 1. Ebaluazioan egin ez dituenen prestaketa. Entrenamendu metodo egokienak bilatu eta programatu Jarduera psikomotoreak Gimnasia - aerobik, Atlet. jaurtiketak – Apar. trebetasunak Atlet. Jauziak – Gimn. Jauziak. Malabar jolasak - Soka jauziak. Aurreko bikote bakoitzetik jarduera bat aukeratu. Guztira 4 aukeratu dira eta horietatik 2 landu.
8	Prestaketa fisikoa Oinarrizko tasun fisikoak garatzeko metodoen aplikazioak ikusi. Egoera fisikoa aztertzeko test ariketak entseiatu. Jarduera psikomotoreak Gimnasia, aerobik, atletismoko jaurtiketak, aparatuetan trebetasunak, atletismoko jauziak, gimnasiako jauziak, malabar jolasak, soka jauziak. Jarduera soziomotoreak Saskibaloia, boleibola, badmintona eta borroka.	7	Jarduera soziomotoreak Saskibaloia, boleibola, badmintona eta borroka... Kirol mota hauetatik 2 aukeratu (1 bakarkako eta 1 taldekako)eta landu. Jarduera psikomotoreak . Balorapena. Aukeratutako jarduera bakoitzean landutako ariketak erakustea.
4	Egoera fisikoaren balorapena Erresistentziako Abiadurako frogak. Indarreko 2 proba. Malgutasuneko proba	7	Egoera fisikoaren balorapena Erresistentziako 3 proba. 1-2 aukeratu Abiadurako 4 proba. 1-2 aukeratu (Hauetatik guztira 3 proba aukeratu)
		7	Hanketako indarreko 4 proba. 1-2 auk. Indarreko 4 proba. 1-2-3 aukeratu Malgutasuneko 3 proba. 1-2 auk. (Hauetatik guztira 5 aukeratu) Egindako aukeratik 4 proba egin
		8	Sorospen ikastaroa Sorospen ikastaroko azterketa Prestaketa fisikoa 1. ebaluazioan ikusitako ariketa multzoetatik 5 ariketa aukeratu. Hauek prestatzeko entrenamendu metodo egokienak bilatu eta programatu Jarduera psikomotoreak Gimnasia - aerobik, Atlet. jaurtiketak – Apar. trebetasunak Atlet. Jauziak – Gimn. Jauziak. Malabar jolasak - Soka jauziak. 2.ebaluazioan landu ez diren jarduerak
		1	Jarduera soziomotoreak Saskibaloia, boleibola, badmintona eta borroka... 2.ebaluazioan landu ez diren jarduerak.
		1	Jarduera psikomotoreak . Balorapena. Aukeratutako jarduera bakoitzean landutako ariketak erakustea.
		1	Egoera fisikoaren balorapena

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Etapa honetan, eduki-motaren arabera, metodo didaktiko desberdinak erabiliko dira.	
Batzuetan, berariazko teknikak ikasteko, ereduak kopiazea behar – beharrekoa izanik, agindu zuzeneko eta elkar eragineko irakaspen metodo didaktikoak erabiltzen dira.	
Beste batzuetan, areriotasun eta areriotasun-laguntasun jolas eta kirolean, aurkikuntza gidatua eta problemen ebazpeneko metodo didaktikoak erabiltzen dira.	

4	BALIABIDEAK
Saioak era praktikoan garatzen direnez, ez dira testu liburuak erabiltzen. Fitxak eta apunteak soilik. Saioak Gimnasioan, patioan, atletismoko pistetan ematen dira. Materiala: Gimnasiako aparatuak, makinak, baloiak, erraketak, pilota...	



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	EBALUAZIO IRIZPIDEAK: -Ikasleak badakien beroketa orokorra eta espezifikoa bereizten. 10 minutuko beroketa antolatzen gai den. -Ezagutzen dituen oinarriko tasun motoren garapenerako entrenamendu metodo garrantzitsuenak. -Jarduera motore desberdinetan ariketak ezagutzen dituen eta praktikatzen dakien. -Badakien programatzen eta antolatzen entrenamendu saioa. -Badakien bere egoera fisiokoa hobetzeko egin behar duen lana. -Proba fisikoen batez bestekoan exekuzio egokia azaldu. -Badaki biziari eusteko teknika oinarrizkoak egoki erabiltzen (zauriak garbitzen, hotza jartzen, bihotzbirikak berpizteko tekniken erabilera oinarrizko eta instrumentalak gauzatzen manikiekin, desfibriladore automatikoak erabiltzen, airebideak garbitzeko teknika eta masaje-teknika oinarrizkoak aplikatzen, etab.). KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: - Prozedura: Exekuzioarekin lotuta dauden irizpideak kontutan hartzen dira. Gehienbat balorapeneko saioetan lortutako emaitzak. (30%) -Jarrera: Eguneroko jarreraren, jantzi egokia ekartzea, garaiz egotea, arretaz entzutea, laguntzea (irakasleari eta gelakideei) eta ikasten eta egiten saiatzea kontutan hartzen da. (50%) -Kontzeptua: Saioaren hasieran eta bukaeran azalpen teorikoetan esandakoak ongi ikastea eta barneratzea. (20%). 3.ebaluaketan azterketa teorikoak eta sorospenen praktika (%50).Jarrerak (%30). Exekuzioarekin lotuta dauden irizpideak kontutan hartzen dira. Gehienbat balorapeneko saioetan lortutako emaitzak. (20%) EBALUAZTEKO TRESNAK: Ikasleak klaseetan egiten du
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	Kontutan izanik %50 jarrera dela, nahikoa da jarrera gorena azaltzea eta ebaluaketan izandako edukiei buruz lan teoriko bat egitea, gainditu ez den ebaluaketa errekuiperatzeko. Edo idatzizko azterketa bat egin beharko du hala badagokio.

LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA										KODEA: 013379			2019-20	
ARLOA	FILOSOFIA I										DATA		2019-09-03		
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2				

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1.	Pentsatzeko estilo berezia garatu eta argi eta modu koherentean bai ahoz eta bai idatziz ere jakinarazteko gaitasuna izatea.
2.	Arazo filosofikoak testuen bitartez aztertu eta azterketa eta eztabaidarako ulertuz jaso diren Filosofiaren kontzeptu eta hitzak erabiltzea enpatiazko eta begirunezko jarrera hartuta.
3.	Gure gizarteko jakintza, jokabide eta balio desberdinak hautematea, gogoeta kritikoaren bidez bakoitzaren funtsen egokitasun arrazionala ziurtatuz.
4.	Adimenezko lanerako oinarrizkoak diren prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea, zuzeneko behaketa, alderatzea, azterketa, informazioaren laburpena eta ebaluazio kritikoak, problemak formulatu eta ebazteko beharrezkoa den adimenezko zorroztasuna balioetsiz
5.	Gizartean arraza, sexua eta sinesmenak direla eta egiten diren desberdintasun eta bereizkeriak justifikatzeko edozein saiakeraren aurrean jarrera kritikoak izatea.

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
2	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
26	1. Jakintza filosofikoa: jatorria, zentzua, beharra eta historia. 2. Ezagutza: teoriak, egia, mugak. 3. Ezagutza zientifikoa; metodo zientifikoak; mugak; zientzia, teknologia eta gizartea. 4. Errealitatearen azalpen metafisikoa.	28	1. Mundu ikuskerak eta naturaren filosofia. 2. Natura eta kultura gizakiarengan. 3. Gizakiari eta bizitzaren zentzuari buruzko gogoeta filosofikoa. 4. Arrazoimen praktikoa: etika; teoria etikoak.	23	5. Estatuaren oinarri filosofikoak. 6. Estetika filosofikoa eta gaitasun sinbolikoak. 7. Komunikazioa eta argudiatze logikoa. 8. Filosofia eta enpresa. Lan eta ekonomia alorreko etika.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
1.	Bakoitzak dakienetik eta denon artean dakiguna bilduz abiatuko gara.
2.	Irakaslearen azalpenak entzun eta edukien irakurketa, azpimarratze eta laburpen jarduerak egingo dira.
3.	Hausnartzeko jarduerak egingo dira, banaka naiz taldeka.
4.	Eztabaidatzeko gaiak planteatuko dira, errespetuzko jarrera izaten ikasteko: norberaren iritzia eman, besteena entzun.
5.	Filmaren bat ikusiko dugu gogoeta sustatzeko helburuarekin.
5.	Testu iruzkinak egingo dira.

4	BALIABIDEAK
Giltza edebé argitaletxeko testu liburua: Filosofia 1	
Internet, youtube, filmak...	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZITZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
EBALUAZIO IRIZPIDEAK: <u>Azterketa:</u> - Oinarritzko ezagutzak neurtuko dira. - Iruzkina: Testua ulertzea, bertan agertzen diren kontzeptuak azaltzea eta ikuspuntu filosofikoa koherentziaz garatzea neurtuko da. <u>Eguneroko lana ikasgelan:</u> - Jarrera: gelako dinamika erraztu /oztopatzen duen, parte hartzea, interesa,... neurtuko dira. - Ikasgelan egiten den lana neurtuko da. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: - Azterketa: notaren %70 - Klaseko jarrera eta interesa: %10 - Egindako lana: eskemak, jarduerak, koadernoan idatzita: %20 Ebaluazioa gaingintzeko, azterketan, gutxienez 3,5 atera behar da 7tik.	

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
Azterketa gainditu ez duen ikasleari gaia lantzeko behar duen laguntza eskainiko zaio: - Kontzeptuak eta ideiak ulertzeko behar dituen azalpenak jolas garaietan emango zaizkio (eskatzen baldin baditu) - Bere apunte eta laburpenak zuzenduko zaizkio. - Errekuperatzeko azterketa egingo du.	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA								KODEA: 013379			2019-20	
ARLOA	LATINA I									DATA 2019-09-02			
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
-Latinaren oinarri fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta lexikalak jakitea eta zuzen erabiltzea, testuak aztertze, itzultze eta interpretatzeko. -Latinaren hizkuntza-egiturei buruz hausnartzea, latina hizkuntza malgukariaren eredu baita, eta ikasleek egitura horiek eurek erabiltzen dituzten hizkuntzen egiturekin alderatzea; hartara, norberaren hizkuntza hobeto ulertu eta erabiliko dute, eta errazago hurbilduko dira ezagutzen dituzten beste hizkuntzetara. -Latinezko testu eta esaldi laburrak (hitz lauzkoak eta gai askotarikoak, bereziki) aztertzea, itzultzea eta iruzkintzea. -Mundu erromatarraren garapen historikoaren aldi nagusiak kokatzea, eta, konkistatutako lurraldeetan-bereziki, Hispanian-, erromatartze-prozesuak eragindako aldaketak ezagutzea; baita prozesu horrek egungo Euskal Herrian lurraldean zer ezaugarri izan zituen jakitea ere. -Mota guztietako informazio-iturriak erabiliz –bibliografiak, ikus-entzunezkoak, museoak, arkeologia-aztarnategiak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak...- informazioa bilatzea, hura baliatzea eta kritikoki aztertzea; hain zuzen ere, zibilizazio erromatarraren zenbait alderdiri buruz datu adierazgarriak lortzeko, eta zibilizazioa horrek historian zehar izandako presentzia egiaztatze.	

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
37	Latina -Hizkuntzaren bilakaera. -Latinaren abezedarioa, ahoskera eta azentuazioa identifikatzea. EAEko bi hizkuntza ofizialen abezedarioekin konparatzea eta hiru hizkuntza egituren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak bereiztea. -Izen-flexioa: kasu-sistemaren eta deklinabideen azterketa. -Aditz-flexioa: konjugazio sistema. Latinezko testuak eta haien interpretazioa -Perpau errazen eta testu laburren azterketa morfosintaktikoa. -Perpau edo testu labur errazak itzultzea.	38	Latina -Kasu-sintaxia. -Perpau-sintaxia. Latinezko testuak eta haien interpretazioa -Itzulitako lanak eta pasarteak irakurtzea, interpretatzea eta iruzkintzea. -Aintzat hartzea Latina dela mundu klasikoa transmititzeko bide nagusia, eta jakin-mina izatea testuak ezagutzeko. Latinezko lexikoa eta haren eboluzioa	30	Latina -Menpeko perpauak. Latinezko lexikoa eta haren eboluzioa -Latinezko hitzen oinarritzko lexikoa egitea, eta, hobeto ikasteko, lexiko multzotan antolatzea. Erroma eta haren ondarea -Erromaren hedapen-prozesua ulertzea, Erromatar Inperioa sortu zenetik desagertu zen arte.



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Azalpenak egin eta gero, ikasleak ariketak egin beharko ditu, klasean eta etxeko-lan bezala, hiztegiarekin.
- Azalpenak irakasleak emandako fotokopietan oinarritzen dira.

BALIABIDEAK

- Ez dugu testu-libururik erabiltzen.
- Irakasleak sortutako hainbat ariketa orri (testuak itzultzeko) eta apunte.
- Latineko hiztegia.

ARGITALETXEA:

5

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Latinezko perpaus eta testu errazak morfologikoki eta sintaktikoki aztertzea.
- Oso zailtasun gutxiko latinezko perpausak eta testu laburrak aztertzea, itzultzea eta iruzkintzea, hitz lauzkoak bereziki, ikasgelan egindako oinarritzko hiztegiak lagunduta.
- Gaztelaniaren eta euskararen lexikoan, latinetik datozen hitzak edo osagaiak bereiztea, eta haien bilakaera fonetikoa, morfologikoa eta semantikoa aztertzea.
- Erromatarren gertaera garrantzitsuak eta kultura -adierazpide nagusiak dagokien espazio- eta denbora-esparruan kokatzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Azterketak: ebaluazioan zehar kontrolak egingo zaizkie, bai teorikoak eta baita praktikoak ere. Ebaluazioko notan kontrolak kontuan hartuko dira, klasean egindako lana eta etxera bidalitakoa. Normalean, talde txikiak direnez kontrol pertsonalizatua eramatea erraza izaten da.
- Ebaluazioro izango du ikasleak nota igotzeko aukera, errekupeazio azterketara aurkeztuz.

EBALUAZTZEKO TRESNAK:

- Irakasleak jasotzen dituen lan guztiak kalifikatuko dira. Ebaluazioko azterketa bakarra izango da, nahiz eta kontrolen bat ere izan daitekeen, azkeneko honek %20a edo %40 balio izan kontrol bakoitzean sartzen den materia kantitatearen arabera.
- Ebaluazioko notak gorde egiten dira 2. deialdi arte.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Ikasleak egin dituen lan guztiak berriro egiteko aukera dauka beti, eta beti kalifikaziorik onena hartuko da kontuan.
- Berreskurapenak azterketen bidez egiten dira. Ikasleak gaingitu ez duen atala/atalak berreskuratu beharko du/ditu.

**PROGRAMAZIO LABURTUA**

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2019-20		
ARLOA	GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATURIKO MATEMATIKA I						DATA	2019-09-05	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1. Errealitate sozialari eta matematikari berari buruzko problemak proposatzea eta ebaztea eta, horretarako, hipotesiak egitea, hainbat estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen prozesua arrazoitzea, emaitzak interpretatzea eta justifikatzea eta haiek egoera berrietan aplikatzea, eraginkortasun handiagoz aurre egiteko egungo gizarteko erronkei. 2. Eredu teorikoak (algebraikoak, funtzionalak, estatistikoak eta probabilitatekoak) eta haiei buruzko edukiak erabiliz, matematika aplikatzea gizarte-zientzien esparruko gertakariak analizatzeko, interpretatzeko eta iragartzeko. 3. Zentzuzko diskurtsoa erabiltzea egoera problematikoei buruzko irizpenak eta erabakiak hartzeko, eta, horretarako, prozedurak justifikatzea, argudioak zuzen lotzea, norberaren arrazoibideak zehatzak izatea eta besterenak kritikoki analizatzea, eta jarrera malgu, ireki eta kritikoa izatea. 4. Matematika-hizkuntzaren eta -adierazpenaren berezko tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, sinbolorik ohikoenak autonomiaz eta sormenez erabiltzea eta matematika-terminoak, -notazioak eta -adierazpenak ulertzea eta erabiltzea, nork bere pentsamenduak argi eta koherentziaz azaltzeko. 5. Egungo informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dituzten baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zentzuz erabiltzea eta, egoeraren arabera, egokienak hautatzea informazioa biltzeko eta prozesatzeko, datu asko maneiatzeko eta kalkuluak egiteko problemak ebazteko behar bezain zehatz eta azkar. 6. Matematika kulturaren osagaitzat hartzea, historian izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, eta matematika eta ingurune soziala, kulturala eta ekonomikoa erlazionatzea, gizarteko hainbat gertakari aztertze eta balioesteko eta nork haiekin konpromisoa hartzeko. 7. Lanean beharrezko eta ohikotzat hartze aldera, matematika jardueraren eta ikerketa sozioekonomikoaren berezko jarrerez jabetzea eta haiek erabiltzea: matematika-hizkuntza balioestea, datuak egiaztatzea eta alderatzea, argudioak kritikoki analizatzea, prozesuak eta emaitzak sistematikoki berrikustea eta talde-lana balioestea. 8. Matematika-kontzeptuak, -prozedurak eta -estrategiak erabiltzea, matematika-arloan bertan eta matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko harremanetan eta aplikazioetan aurrera egiteko eta, hartara, gizarte- eta ekonomia-gaiei eta beste gai batzuei buruzko ikasketak egin ahal izateko.	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	ARITMETIKA ETA ALJEBRA	ANALISIA	ESTATISTIKA ETA
14	1.- Zenbaki errealeak	12 4.- Funtzioak	PROBABILITATEA
7	2.- Finantzetako aritmetika	12 5.- Funtzio motak	18 7.- Estatistika
14	3.- Aljebra	13 6.- Deribatuak	17 8.- Probabilitatea

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, Matematikaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute. Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko. Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira: - Gai batzuetan ikasleen ikerketa bultzatuko da, aurreko ezagutzetan oinarrituz gai berrien prozedurak aurki ditzaten. - Gelan ikasleak hiruak eseriko dira, elkarlana eta lankidetzak bultzatzeko. - Irakasleak gaiak azalduko ditu, ikasle guztiak uler ditzaten. - Ikasleek gai batzuk prestatuko dituzte eta besteen aurrean azaldu. Gaien laburpenak eta eskemak bultzatuko dira ikasleek edukiak bere garrantziaren arabera sailkatzen ikas dezaten. - Lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten. - Aplikazio informatikoak erabiliko dira ikasleek bere ordenagailuetan ere ariketa batzuk ebatz ditzaten.	



4	BALIABIDEAK
Apunteak: Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apuntestan oinarritua dago. Internet: Geogebra eta beste programa eta baliabide batzuk (web-orriak, animazioak, bideoak) gaitan sakontzeko erabiliko dira. Moodle: plataforma honetan apunteak web orri gisa zintzilikatuta daude, honek ematen duen aukerak aprobetxatu nahian (geogebra appletak, bideoak, aurkezpen dinamikokoak eta abar txertatzea, adibidez). Programa informatikoak: ohiko tresnak aparte (papera, boligrafoa eta kalkulagailua), ordenagailua ere zenbait ariketa egiteko erabiliko dute.	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
EBALUAZIO IRIZPIDEAK: - Eguneroko bizitzako egoerak analizatzen eta ondorioak ateratzen jakitea, zenbaki errealek eta zenbaki errealeko eragiketak erabiliz. - Adierazpen aljebraikoen bidezko ereduak eginez, eguneroko bizitzako problemak eta egoerak ebazten jakitea. - Finantzako matematikaren esparruko problemak ebazten jakitea. - Oinarritzko funtzioen funtsezko propietateak ezagutu eta haiek adierazi. - Gizarte arloko gertakarien inguruko egoerei buruzko funtzioak datu-tauletara eta grafikoetara egokitzeko gai izan.. - Estatistika-taulak eta- grafikoak egiten eta interpretatzen jakin - Hainbat fenomeno sozialetan gertatzen diren aldaketak aztertzeo oinarritzko funtzioak deribatzen jakin.. - Gizarte arloko gertakarien banaketa bidimentsionalari dagozkion aldagaien arteko erlazioa interpretatzea eta ondorioak ateratzea. - Ausazko gertaeren probabilitateak zehazten jakitea. - Informazioa kudeatuz, hipotesiak eratuz, eta estrategia egokiak aukeratuz, eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko gai izatea. - Matematika jarduerarekin lotutako jokabideak aplikatzeko gai izatea, hala nola, jakin-mina, saiatua izatea, ordena... KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: - Ebaluazioan zehar bi azterketa idatzi egingo dira. Ebaluazioan proiektu bat ere egingo da. - Ebaluazioko nota bi azterketa horietan eta proiektuan oinarrituko da. ➢ Lehengo azterketaren balioa %40 izango da. Ikasleak azterketa gainditzen badu, zati hori liberatu egingo du, bestela bigarren azterketan errepikatu beharko du. ➢ Bigarren azterketaren balioa %40 izango da. ➢ Proiektuaren balioa %20 izango da. - Kurtsoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da. EBALUATZEKO TRESNAK: - Idatzizko azterketetan eta proiektuan kontuan izango dira eta baloratu ere: azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).	

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
Ebaluazioa gainditu ez duten ikasleek, baita nota hobetu nahi dutenek, berreskurapen azterketa egin beharko dute. Proiektuaren nota gordeko zaie.	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379	2018-19		
ARLOA	EKONOMIA							DATA	2018-09-02	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		BATX 1	X	BATX 2	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	1. Ikasleak sistema Ekonomikoen desberdintasunez jabetzea nork bere iritzia izan dezan haietako bakoitzaren abantailez eta desabantailez. 2. Ekoizpen faktore eta eragile ekonomikoen erlazioak ezagutzea. 3. Merkatuaren funtzionamendua eta haren mugak deskribatzea. 4. Finantza-sistemak nahiz Estatuak (sektore publikoaren arautzailea den aldetik) betetzen duten eginkizuna aztertzea, nork bere iritzia izan dezan desberdintasun ekonomikoei buruz. Estatuak (sektore publikoaren arautzailea den aldetik) betetzen duten eginkizun zehatzari buruz, eta, era berean, desberdintasunak arindu ditzaketen birbanaketa-neurriak aztertzea, era horretan nork bere iritzia izan dezan desberdintasun ekonomikoei buruz, eta jakin dezan nola ezar ditzakeen sistemak birbanaketa-mekanismoak. 5. Ekonomiaren garapena eta hazkundea azaltzea: Hazkunde ekonomikoak ingurumenean eta pertsonen bizi kalitatean dituen ondorioak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea, hazkundeak aberastasunaren banaketan, ingurumen hondamenean eta bizi-kalitatean duen eraginaz ohartzea eta garapen bidean dauden herrialdeek Mendebaldeko herrialdeen garapen ereduari jarraitzeko dituzten arazoak aztertzea. 6. Espainiako, Europako eta Euskal Herriko ekonomiek nazioarteko testuinguru ekonomikoan dituzten egoeraren eta aurrera begirako aukeren ezaugarri bereizgarriak ezagutzea eta ulertzea, enpresen deslokalizazioaren eragileak aztertzea, produktibitateari, kostuei eta etekinei buruzko datuetan oinarrituta, eta hark enpleguan eta migrazio-mugimenduetan dituen ondorioak ebaluatzea eta, horrenbestez, Europako herrialdeetako ekonomien arteko interdependentzia ere ulertzeko. 7. Gaur egungo eta mundu mailako ekonomiaren arazo nagusiak ezagutzea testuinguru sozial politiko kultural eta naturalarekin erlazionatuz, horretarako komunikabideetan eta/edo Interneten egungo arazo ekonomikoei buruz agertzen diren mezuak, datuak eta informazioak analizatuz eta interpretatuz. 8. Datu estatistiko garrantzitsuenak non aurkitu ikastea beren errealitate hurbilena ezagutzeko.

o

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
5	Ekonomiaren funtsa.	6 Merkatuaren hutsegiteak.	7 Dirua, bankuak eta moneta-politika.
6	Ekonomia antolaketa eta hazkundea.	5 Ekonomia adierazleak: ekoizpena.	7 Espainiako finantza sistema. Burtsa.
6	Ekoizpena eta banaketa.	6 Ekonomia adierazleak: enplegua eta prezioak.	6 Nazioarteko merkataritza.
6	Merkatuaren funtzionamendua.	6 Merkatuaren barne indarrak.	5 Integrazio ekonomikoa: Europar Batasuna.
7	Merkatu motak.	7 Politika makroekonomikoak. Zerga-politika.	5 Globalizazioa eta munduko ekonomiaren desorekak.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	- Ikasleen ezagutzetatik abiatuz kontzeptuzko gai multzoak garatzeko azalpenak emango dira ahal den neurrian ikasleen bizitza errealekin lotura duten adibideak erabiliz eta beraiek ingurua ikertzera bultzatuz. - Ikasleek testu liburua edukiko dute baina beren apunteak prestatu, ordenatu, eskemak egin, ulertzen ez dena galdetu, irakaslearen galderak erantzun eta agindutako ariketak egiteak osatuko du ikasleen eguneroko lana. - Bultzatuko da ikaslea gaiaren inguruan dituen kezak, iritziak, zalantzak etab. azaltzea eta ikasleen artean eztabaida sortzeko ahaleginak egingo dira beraiek gaien inplikatu daitezen. - Teknologia digitala erabiliz egungo ekonomiako informazioa eskuratuko dute: adibidez, bankuen eskaintzak, adierazle ekonomiko ezberdinak: langabezia tasa, inflazioa, B:P:G., truke tasak, interes tasak, herrietako errenta maila... - Egungo ekonomia berrien jarraipena egingo da ikasleen ulermen maila kontuan izanda.

4	BALIABIDEAK
	Beste baliabideak: Internet eta prentsa artikuloak.



Liburua:

Prestatu eta egokitutako txosten propioa.

Testu liburua: Apunte propioak

ARGITALETXEA: -

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**
EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

1. Gizarte baten oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzea eta sistema ekonomiko batean haiek konpontzeko modua arrazoitzea, bai eta sistema horren abantailak eta desabantailak arrazoitzea ere..
2. Herrialdeko produkzio-egituraren ezaugarri nagusiak identifikatzea. Enpresa-deslokalizazio baten arrazoiak aztertzea, produktibitateari, kostuei eta etekinei buruzko datuetan oinarrituta, eta hark ekonomian eta lan-merkatuan dituen ondorioak ebaluatzea.
3. Merkatuaren funtzionamendutik abiatuta, ondasunen eta zerbitzuen prezioetan gertatzen diren aldaketak interpretatzea zenbait aldagairen arabera. Benetako merkatuen funtzionamendua aztertzea, eta ikustea ereduak zer desberdintasun dituzten eta desberdintasun horiek zer ondorio dakartzaten kontsumitzaileentzat, enpresentzat eta estatuentzat.
4. Magnitude makroekonomiko nagusiak bereiztea, eta haien arteko erlazioak aztertzea, eta, horretarako, bizi-kalitatearen adierazle gisa dauzkaten desabantailak eta mugak ebaluatzea. Oinarrizko kopuru eta adierazle ekonomikoak informatika-tresnak erabiliz interpretatzea eta tratatzea.
5. Estatuak merkatuko ekonomia-sistemetan betetzen dituen funtzioak eta dauzkan helburuak adibide adierazgarrien bidez azaltzea eta adieraztea, eta estatuak erabiltzen dituen tresna nagusiak identifikatzea, jarduera ekonomikoan betetzen duen eginkizunaren abantailak eta desabantailak ebaluatzearekin batera. Erlazio ekonomikoetan esku hartzen duten beste eragile batzuen funtzioak azaltzea.
6. Diruaren sorrera-prozesua, haren balio-aldaketak eta azken horiek nola neurtzen diren deskribatzea, eta bai inflazioaren eragileak, bai inflazioak kontsumitzaileengan, enpresetan eta ekonomia osoan dituen ondorioak azaltzen dituzten teoriak identifikatzea. Finantza sistemaren funtzionamendua azaltzea eta hartako produktu eta merkatu nagusien ezaugarriak jakitea.
7. Interpretazio guztiak kontuan hartzea, eta haiek azal ditzaketen gorabeherak eta zergatiak adieraztea, gizarte komunikabideetatik eta/edo Internetetik datozen informazioetan oinarrituta, baldin eta, bakoitzak bere ikuspuntutik, politika ekonomikoarekin zerikusia duten gaurkotasuneko gaiak tratatzen badituzte, eta, era berean, datuen, iritzien eta iragarpenen artean bereiztea..
8. Hazkundeak, krisi ekonomikoek, integrazio ekonomikoak eta merkatu globalak pertsonen bizi-kalitatean, ingurumenean eta aberastasunaren tokian tokiko nahiz mundu osoan banaketan duten eragina ebaluatzea, eta aipamen berezia egitea garatu gabeko herrialdeetako hazkunde ekonomikoarekin eta pobrezia-rekin zerikusia duten arazoei buruz; izan ere, arazo horiek harreman ekonomiko desorekatuen ondorio dira, eta, beraz, beharrezkoa da merkataritza-truke zuzenagoak eta bidezkoagoak izatea.

**KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:**

Nota horrela banatuko da:

- Notaren %85 edukietan oinarrituko da:
- Notaren %15, ikasgelako lana, etxerako lanak eta jarrera.
- Ikasleak nota igo nahi badu aukera emango zaio errekonferentzia egunetan beste azterketa bat egiteko.

Edukiak:

-Ebaluazio bakoitzean bi azterketa egingo dira: tarteko kontrol bat eta ebaluazio garaiko azterketa (bukaeran).
-Gaien banaketa egoeraren arabera egokitu ahalko da, baina printzipioz kontrolean ebaluaketako lehen 3 gaiak sartuko dira, eta ebaluazioko azterketarako hurrengo bi gaiak gehituko zaizkio.

- Kontrola (1-2-3): Edukietan oinarritutako portzentaiaren %40-55 tartean hartuko du, gaiei eskainitako ordu kopuruen arabera. Kontrolean 6 bat edo gehiago atera ezean, eduki hauek ondoren ebaluazio azterketan berriz landu beharko dira. Kontrolako kalifikazioa 6 bat edo handiagoa bada, ikasleak atal hau ez errepikatzeko hautua egin dezake, eta kalifikazio hau gordeko zaio ebaluaziokoa kalkulatzeko.
- Ebaluazio azterketa (4-5): %60-45 edukien portzentaiaren gainean. Derrigorrezkoa izango da denentzat bigarren atala egitea (4. eta 5. gaiak) eta kontrola 6 baino gutxiago dutenek lehen atala ere egin beharko dute, portzentaiak mantentzen direlarik.
- Proiektuak egiten direnean, portzentaiak ebaluazio azterketa eta proiektuaren artean banatu egingo litzateke; ebaluazio azterketak %50 eta proiektuak %20.

Ikasgelako lanak eta etxerako lanak:

-Egindako banakako edo taldekako lanak, baita etxean egin beharrekoak ere baloratuko dira.

Jarrera:

-Ikasgaiarekiko duten interesa baita partehartzea ere hartuko dira kontuan.

IKASGAIA GAINDITU AHAL IZATEKO KALIFIKAZIO PORTZENTAIA BAKOITZEAN, BAI ETA AZTERKETA BAKOITZEAN ERE, GUTXINENKOA DEN 4 BAT ATERA BEHARKO DA. LORTU EZEAN EZ DA IKASGAIA GAINDITUKO HOBETU BEGARREKO ATALA EDO ATALAK HOBETU ARTE.

Errespetuzko giro bat bermatzeko ikasgelako lanketan, honako baldintza hauek gehitzen dira:

- Jokabide desagokiek, behar bezala erregistratuta, jarrerako notan eragin negatiboa izango dute. Oihartzoko ikasleen eskubide eta betebeharrak dokumentuak zehaztutako 3 jokabide desagoki egiteak ebaluazio batean, automatikoki jarrerako nota 0 izatea ekarriko du.
- Jarrerako nota 0 duten ikasleek ebaluazio garaiko azterketa baloratua izateko eskubidea galduko dute, eta berreskurapenean egin beharko dute. Ebaluazio garaian azterketa egin ahalko dute, baina ez zaie zuzendu eta baloratuko.
- Azterketen ataleko nota 0 izateak ere, jarrerako nota baloratua izateko eskubidea kenduko dio ikasleari, eta berreskurapenean nota hobetu arte ez zaio kontuan hartuko.
- Oihartzoko ikasleek eskubide eta betebeharrak dokumentuak jasota duen Bizikidetzaren aurkako jokabide bat izateak klasean, edo jarrera larriagoek, jarrera ataleko nota 0 izatea ekarriko du, eta lehenago aipatutako ondorioak izango ditu.

EBALUATZEKO TRESNAK:

Idatzizko frogak, ikasgelako lana eta proiektuak.

Ikasleak ebaluaketaren bat gaingiditzen ez badu berreskurapen frogak bat izango du. Froga hau prestatzeko irakasleak ikasleari lagunduko dio bere prestakuntza bideratuz.

Idatzizko frogako atal bat gaingiditua badauka, baina ez baditu gaingiditzeko baldintzak betetzen gaingiditua izateko, gaingiditutako atala gordeko zaio. Berreskurapenean gaingiditu duen zatitik bakarrik ebaluatuko da. Gaingiditutako zati



hauek ohiko deialdirarte (deialdi hau barne) gordeko zaizkio.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA										KODEA: 013379			2019-20	
ARLOA	Literatura Unibertsala										DATA 2019-09-02				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2				

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
---	---

- Literatura-testuak edo pasarte garrantzitsuak esanahiaz jabetuz irakurtzea, irakurtzeko ohitura autonomoa garatu eta literatura irakurtzen ikasi.
- Norbere irizpidearekin literatur testuak interpretatu eta aztertu, beren testuinguru historiko-kulturalarekin erlazionatuz.
- Literatura Unibertsala osatzen duten mugimendu estetikoetako generoen eta idazlan eta egile garrantzitsuenen ezaugarriak ezagutu.
- Literatura Unibertsaleko lanen eta bestelako arte adierazpenen (musika, zinema...) arteko harremanak aztertu.
- Literatura-testuak kritikoki balioestea, banaka nahiz taldeka egindako sorkuntzak eta sentipenak direla ulertzeko, eta gizakiok errealitatea ulertzeko egindako ahaleginen fruitu direla konturatzeko.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
35	Antzinarotik Aro Modernora: -Literatura biblikoa, greziar eta latindarra. -Errenazimentua eta klasizismoa. -Maitasunaren lirika. -Prosazko narrazioa. -Europako antzerki klasikoa. -Argien Mendea: Ilustrazioa. Entziklopedia. • Ilustrazioko prosa • Europako XVIII. Mendeko eleberria. Cervantesen eta pikareskaren ondorengoak. -Lana: Poesiari buruzkoa.	34	Aro Garaikidea (XIX. mendea): -Erromantizismoa. -Errealismoa. -XIX. mendeko Europako eleberrigile garrantzitsuenak. -AEBko literatura handiaren sorrera. -Poetikaren modernitatea. -Europako antzerkiaren berrikuntza. -Lana: Nobelari buruzkoa.	32	Aro Garaikidea (XX. mendea): -XIX. mendeko pentsamoldearen krisia eta mende amaierako kultura. -Europako abangoardiak. Surrealismoa. -Belaunaldi galdua ("Lost Generation"). -Absurdoaren antzerkia. -Hispanoamerikako literatura. Lana: Antzerkiari buruzkoa.

3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

-Gelako jarduerak: eduki teorikoak lan praktikoen bidez gauzatu daitezke (monografiak, ahozko azalpenak...), beti testu hautatuen irakurketari lehenetasuna emanez.

-Ikasleak irakaslearen azalpenak aktiboki jarraitu behar ditu, eta irakasleak beharrezko azalpenak eman.

-Ikasleak agintzen zaizkion lanak, bakarka edo taldeka, egin behar ditu, horretarako behar duen informazioa bilatuz.

4	BALIABIDEAK
---	-------------

- Zenbait apunte eta fotokopia eta bere aplikazioa testutan eta obra literarioetan (jeneroak ezberdinduz).
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili literatura-gaiei buruz informazioa bilatzeko eta aditzera emateko.
- Eskema bati jarraiki, idazlan, egile edo garai bati buruzko azterketa eta iruzkinak egitea, ahoz nahiz idatziz, ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiliz.



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**
EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Literatura, gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren nortasuna, norberaren kultura eta norberaren gizartea eratzeko tresna moduan erabiltzea.
- Literatura-genero handien eboluzioan izandako zenbait une garrantzitsu azaltzea, eta garaiko ideia estetiko garrantzitsuenekin eta eraldaketa artistiko eta historikoekin erlazionatzea.
- Literaturak sortutako zenbait mitoren eta arketiporen eraginaz ohartzea, eta kultura unibertsalean duten balio iraunkorraz jabetzea.
- Literatura unibertsaleko lan adierazgarriak beste arte-adierazpide batzuekin erlazionatzea, eta adierazpen-hizkuntzen artean dauden antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzea.
- Literatura-lanak balioestea, ahoz nahiz idatziz, ideia eta sentipen kolektiboen topaleku giza, eta gure esperientziak zabaltzeko baliabide gisa.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu kritiko, autonomo eta eraginkorrean erabiltzea, literatura-gaiei buruz informazioa bilatzeko eta aditzera emateko.
- Elkarriketak erabiltzea irakurritako testuak ulertzeko eta ezagutzak eskuratzeko.
- Eskema bati jarraiki, idazlan, egile edo garai bati buruzko azterketa eta iruzkinak egitea, ahoz nahiz idatziz, ikus-entzunezkoak eta IKTak erabiliz.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazioan zehar egindako lanen batez bestekoari (idatzizko nahiz ahozkoak) erreparatuko zaio.
- Ikasleak egiten dituen lan guztiak kalifikatzeko oinarritzko faktorea izango da.
- Interesa, arreta eta partehartzea positiboki baloratuko dira.

EBALUATZEKO TRESNAK:

- Etixerako bidaltzen diren lanak.
- Gaiaren arabera zehaztuko dira ahozko aurkezpen eta frogak.
- Gaiarekiko jarrerak ere bere pisua izango du.
- Ebaluazioko notak gorde egiten dira 2. deialdi arte.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Hainbat ebaluazio gaingitu ez dutenei errekupeazio azterketa egingo zaie.
- Beharrezkoa da, gaia gaingitzeko, obra batzuk irakurrita izatea.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379	2019 - 2020	
ARLOA	MATEMATIKA I						DATA	19-09-05	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4	BATX 1	X BATX 2

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	1.- Errealitate sozialari eta matematikari berari buruzko problemak proposatzea eta ebaztea eta, horretarako, hipotesiak egitea, hainbat estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua arrazoitzea, emaitzak interpretatzea eta justifikatzea eta haiek egoera berrietan aplikatzea, eraginkortasun handiagoz aurre egiteko egungo gizarteko erronkei. 2.- Eredu teorikoak (algebraikoak, funtzionalak, estatistikoak eta probabilitatikoak) eta haiei buruzko edukia erabiliz, matematika aplikatzea gizarte-zientzien esparruko gertakariak analizatzeko, interpretatzeko eta iragartzeko. 3.- Zentzuzko diskurtsoa erabiltzea egoera problematikoei buruzko irizpenak eta erabakiak hartzeko, eta, horretarako, prozedurak justifikatzea, argudioak zuzen lotzea, norberaren arrazoiak zehatzak izatea eta besterenak kritikoki analizatzea, eta jarrera malgu, ireki eta kritikoa izatea. 4.- Matematika-hizkuntzaren eta -adierazpenaren berezko tresnak (zenbakiak, taulak, grafikoak, funtzioak, sinbolik orriak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea eta matematika-terminoak, -notazioak eta -adierazpenak ulertzea eta erabiltzea, nork bere pentsamenduak argi eta koherentziaz azaltzeko. 5.- Egungo informazio- eta komunikazio-teknologiak ematen dituzten baliabideak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) zentzuz erabiltzea eta, egoeraren arabera, egokienak hautatzea informazioa biltzeko eta prozesatzeko, datu asko maneiatzeko eta kalkulak egiteko problemak ebazteko behar bezain zehatz eta azkar. 6.- Matematika kulturaren osagaitzat hartzea, historian izan duen eta egungo gizartean duen egitekoa kontuan hartuta, eta matematika eta ingurune soziala, kulturala eta ekonomikoa erlazionatzea, gizarteko hainbat gertakari aztertzea eta balioesteko eta nork haiekin konpromisoa hartzeko. 7.- Lanean beharrezko eta ohikotzat hartze aldera, matematika-jardueraren eta ikerketa sozioekonomikoaren berezko jarreraz jabetzea eta haiek erabiltzea: matematika-hizkuntza balioestea, datuak egiaztatzea eta alderatzea, argudioak kritikoki analizatzea, prozesuak eta emaitzak sistematikoki berrikustea eta talde-lana balioestea. 8.- Matematika-kontzeptuak, -prozedurak eta -estrategiak erabiltzea, matematika-arloan bertan eta matematikaren eta beste jakintza-arlo batzuen arteko harremanetan eta aplikazioetan aurrera egiteko eta, hartara, gizarte- eta ekonomia-gaiei eta beste gai batzuei buruzko ikasketak egin ahal izateko.

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
10	1. Berreketa.. Logaritmoak.	4	3.- Limiteak. e zenbakia	7	7.- Geometria analitikoa
19	2. Aljebra.	16	4. - Trigonometria	16	8.- Funtzioak. Limiteak.
4	3.- Segidak.	4	5.- Zenbaki konplexuak	6	9.- Funtzio deribatua.
		4	6. - Bektoreak. Biderk eskalarra	7	10.- Deribatua.Aplikazioak.
		3	7.- Geometria analitikoa		

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<u>Klaseen jardura</u>: Apunte-txostena da ikasgaiaren garapenerako ardatz nagusia. Kontzeptuen azalpena, adibide lagungarriak eta klasean garatzeko ariketak. Ikasgai bakoitza, unitatetan dago banatuta. Orohar, unitate bat garatzeko eskola ordu bat erabiltzen da. <u>Ikasleak bere kabuz egitekoak</u>: Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak. Hauen zuzenketarako, eskatutako ariketa gehigarri guztiak ebatzita, eskuragarri ditu ikasleak.

4	BALIABIDEAK
---	-------------



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntzako Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Inspección de Educación

Irakasleak banatutako apunte-txostenak dira baliabide nagusia (3 ale). Hauetan, azalpen teorikoak, klasean egiteko ariketak, ariketa eredu ebatziak eta proposatutako ariketa gehigarriak biltzen dira.

Ikasgela birtuala: Txostenetan azaltzen diren ariketa gehigarri guztiak ebatzita, eskuragarri ditu ikasleak Oiertzoko Moodle plataforman.

TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu)

ARGITALETXEA:

5

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- 1.1..Ea errodurak berredura moduan idazten dituen kalkuloak errazteko
- 1.2. Ea espesio algebrakoak arrazionalizatzen dakien
- 1.3..Ea logaritmoak kalkulatzeko dituen
- 1.4. Ea logaritmoen propietateak ezagutu eta egoki erabiltzen dituen
- 1.5. Ea logaritmoen oinarria aldatzen dakien
- 2.1..Ea egiten dituen dagozkion eragiketa algebrakoak
- 2.2. Ea kalkulatzeko dituen polinomio baten erroak eta, horretarako, ea dagokion metodoak aplikatzeko dituen.
- 2.3..Ea ebazten dituen ekuazio polinomiko, arrazional, irrazional, esponentzial eta logaritmikoak
- 2.4. Ea ekuazio sistema linealak ebazten dituen Gaussen metodoa erabiliz
- 2.5. Ea ekuazio sistema ez linealak ebazten dituen eta, horretarako, ea dagokion metodoak aplikatzeko dituen.
- 2.6..Ea ebazten dituen inekuazio polinomiko eta arrazionalak
- 2.7. Ea inekuazio sistema k ebazten dituen metodoa grafikoak erabiliz
- 3.1..Ea segida sinpleen gai orokorrak kalkulatzeko dituen
- 3.2. Ea segida sinpleen limiteak kalkulatzeko dituen
- 3.3. Ea indeterminazioak ebazten dituen
- 3.4. Ea ebazten dituen zenbakizko progresioei buruzko problemak
- 4.1..Ea arrazoi trigonometrikoak elkarrekin erlazionatzeko dituen eta, horretarako, ea oinarriko erlazioak erabiltzen dituen.
- 4.2. Ea angelu desberdinak elkarrekin erlazionatzeko dituen eta, horien bidez kalkulatzeko dituen.
- 4.3. Ea espresio trigonometrikoak sinplifikatzeko dituen eta, horretarako, ea oinarriko formulak erabiltzen dituen.
- 4.4. Ea berdintza trigonometrikoak egiaztatzen .
- 4.5. Ea ekuazio trigonometrikoak ebazten dituen eta erroak radianetan adierazi .
- 4.6..Ea aplikatzeko dituen sinuaren eta kosinuaren teorema, edozein triangelu motari buruzko problemak ebazteko..
- 4.7. Ea erabiltzen duen kalkulagailua, kalkulu trigonometrikoak egiteko.
- 5.1..Ea zenbaki konplexuak egokiro adierazten dituen plano konplexuan.
- 5.2. Ea zenbaki konplexuak era binomikoan eta polar adierazten dituen eta, adierazpen batetik bestera pasa
- 5.3. Ea zenbaki konplexuen arteko eragiketak burutzen dituen era binomikoan.
- 6.1..Ea adierazten dituen bektoreak planoan eta ea interpretatzeko dituen modulu, norabide eta noranzko kontzeptuak.
- 6.2. Ea erabiltzen duen bektoreei buruzko ezagutza planoko problema geometrikoak aztertzeke.
- 6.3. Ea kalkulatzeko duen bektorren arteko biderkaketa eskalarra eta interpretatzeko duen bere esanahi geometrikoa
- 7.1..Ea zehazten duen malda eta puntu batek definitutako zuzen baten ekuazioa.
- 7.2. Ea aztertzen dituen zuzenen arteko posizio erlatiboak eta ondorio zuzenak ateratzeko dituen.
- 7.3. Ea ebazten dituen puntuen eta zuzenen arteko distantziari buruzko problemak.
- 7.4. Ea erabiltzen dituen geometria analitikoari buruzko ezagutzak askotariko problema motak ebazteko.
- 8.1. Ea adierazten dituen oinarriko erlazio funtzionalak grafikoen bidez eta grafikotik abiatuta adierazpen algebrako bidez.
- 8.2. Ea lotzen dituen funtzio algebrako bakunen eta funtzio polinomikoen, esponentzialen, logaritmikoen eta trigonometrikoen grafikoen ezaugarri orokorrak haien adierazpen algebrakoarekin .
- 8.3. Ea funtzio polinomiko eta arrazionalen limiteak (puntu batean eta infinituan) kalkulatzeko dituen eta bere esanahi grafikoak interpretatzeko dituen
- 8.4. Ea funtzio arrazionalen asintotak (bertikal, horizontal eta zeiharra) kalkulatzeko dituen eta bere esanahi grafikoak interpretatzeko dituen
- 8.5. .Grafiko baten elementu nagusiak analizatzeko, ea antzematen dituen grafiko horren ezaugarri orokorrak eta ea lotzen duen grafiko dagokion adierazpen algebrakoarekin ..
- 9.1. Ea dakien funtzio deribatuen kalkulatzeko arauak erabiliz
- 9.2. Ea kalkulatzeko duen funtzio konposatuaren deribatua katearen erregela erabiliz
- 9.3. Ea kalkulatzeko duen funtzio deribatua , batuketa, biderkaketa eta zatiketaren legeak erabiliz
- 10.1. Ea kalkulatzeko duen kurba baten zuzen ukitzailearen ekuazioa puntu batean
- 10.2..Ea gai den funtzio baten monotonia tartek aztertzeke eta mutur erlaziboak kalkulatzeko
- 10.3..Ea gai den funtzio baten kurbadura tartek aztertzeke eta inflexio-puntuak kalkulatzeko
- 10.4..Ea gai den funtzioaren adierazpen grafikoak egiteko, zenbait propietate aztertu ondoren (Polinomikoa, Arrazionala)
- 11.1. Ea kalkulatzeko dituen oinarriko parametro estatistikoak batzbestekoa, bariantza, desbiderazioa, kobariantza)
- 11.2..Ea kalkulatzeko dituen korrelazio-koefizienteak eta erregresio zuzenak



5	EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Astero, aste horri dagozkion helburuak eta egin beharrekoak (ariketak eta problemak) finkatzen ditu irakasleak. Asteko azken klasean (ostiraletan), asteko lanak ebaluatzen dira, froga labur baten bidez (ariketa bat - 10 minutu - Puntuazioa: Orik 1 era). Ostiraletan egindako froga bakoitzak 0,5 balioko du ebaluazioaren notarako. Azken hauetan lortutakoa guztira, ebaluazioko kalifikazioaren %20a izango da gehienez. Ebaluazio azterketaren balioa, ebaluazioko kalifikazioaren %80a izango da. Ebaluazio batean bi azterketa eginez gero: zati bakoitzean aurreko paragrafoan azaldutako kriterioa erabiliko da. Aurreneko zatia gaindituz gero, zati hori "liberatu" da. Ebaluazioko kalifikazioa lortzeko, zati bakoitzak pisu desberdina izan dezake, erabilitako ordu lektibo kopuruaren arabera. $\text{Ebaluazioko nota} = (\text{ostiraletako nota}) * \%20 + \text{ebaluazioko azterketa} * \%80$ Ikasturteko kalifikazioa hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da. Ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira. Ebaluazioa gainditzeko aukera gehiago balego, behin betiko notarako, aurreko saiakera bakoitzak %20a balio izango du. $\text{Ebaluazioko behin - betiko nota} = (\text{Ebaluazioko nota}) * \%20 + (\text{errekuperazio} - \text{azterketako nota}) * \%80$ Nota igotzeaz: Ebaluazioa gainditu arren, ikasleak nota hobetzera aurkezteko eskubidea du. Salbuespenez erabili behar du ikasleak eskubide hau, ez da ohiko bihurtu behar. Kasu honetan ere, ebaluazioaren behin betiko nota kalkulatzeko, bigarren saiakeran lortutako nota (%80) eta lehendik zuen nota (%20) kontutan hartuko dira. Lehenengo deialdiko azterketan (Maiatza), ikasleak suspendituak dituen ebaluazioak gainditu ahal izateko azterketa izango du (edo 3.ebaluazioko erreperazio azterketa soilik egin dezake). Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente.	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
Ebaluazioro erreperazio azterketa egiten da. Hori prestatzeko materiala (ariketak) banatu egiten zaie eta lan egiteko egutegi bat proposatu. Ikaslearen esku gelditzen da, programa horri atxekitzea edo erreperazio azterketa bere kabuz prestatzea. Maiatzeko azterketan, ikasleak kurtsoan zehar ez erreperatutako ebaluazioak gainditzeko aukera berri bat izango du. Bigarren deialdirako, gainditu gabeko ebaluazioak geldituko zaizkio pendiente. Horiek prestatzeko, erreperazio klaseak izango ditu.	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA										KODEA: 013379				2019-20				
ARLOA	BIOLOGIA-GEOLOGIA										DATA		2019-09-07						
MAILA	DBH 1			DBH 2			DBH 3			DBH 4			BATX 1		X	BATX 2			

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

1. Biologia eta Geologiako lege, teoria eta eredu nagusiak ulertzea eguneroko egoerak aztertze eta fenomeno naturalak interpretatzeko gaitasuna lortzeko. Zientzia hauek teknologiarekin, ingurumenarekin eta gizartearekin duten erlazioaz jabetzea, hiritar bezala gure inguruko eta munduko arazoengatik inguruko erabakietan parte hartu ahal izateko eta gizartearen etorkizun hobe eta jasangarriagoa lortzen saiatzeko.
2. Arazoak identifikatzeko, planteatzeko eta ebazteko, bai indibidualki eta bai taldean, autonomiaz, inbestigazio-lanak egiteko trebetasuna lortzea. Lan zientifikoetarako beharrezko diren jarrerak azaltzea, hala nola informazio-bilketa, kritika gaitasuna, ideia berriekiko irekitasuna eta talde-lanerako egokitasuna
3. Hizkuntza zientifikoa ezagutu eta modu egokian erabiltzea euskarri eta errekurso desberdinak erabiliz
4. Azalpen eskemak eraikitzea Biologiaren eta Geologiaren kontzeptuak, ereduak eta teoriak uztartuz, ezagupen horiek bai eguneroko bizitzan, bai arlo zientifikoetan erabili ahal izateko eta zientziaren arlo hauen ikuspegi orokorra lortzeko.
5. Biologiako eta Geologiako ezagupenen aldakortasunaz jabetu hipotesi eta teoria kontrajarriak aztertuz. Giza ezagupenaren eboluzioan eztabaida zientifikoek duten garrantziaz jabetu, pentsaera kritikoa garatu ahal izateko eta zientziak pertsonen garapenean duen garrantzia baloratzeko.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

36	1. ebaluazioa	36	2. ebaluazioa	34	3. ebaluazioa
	Geologia: 1. Lurraren egitura eta konposizioa • Eguzki sistema • Geosfera eta bere konposizioa 2. Lurraren dinamika • Litosfera • Dinamikaren ondorioak 3. Prozesu geologikoak: endogeno • Litosferaren deformazioa • Magmatismoa 4. Prozesu geologikoak: exogenoak • Lurzorua • Harri sedimentarioak		Biologia: 5. Biziaren materia. Izaki bizidunak • Bioelementuak • Biomolekulak 6. Biziaren antolakuntza • Zelula • Metabolismoa • Forma ez zelularrak 7. Ehunak • Landare ehunak • Animalia ehunak 8. Bizia betikotzea • Ziklo biologikoa • Mitosia • Meiosia		Biologia: 8. Izaki bizidunen sailkapena • Protoktistak, moneroak, onddoak, landareak eta animaliak • Erreinuen ezaugarriak 9. Landareak • Nutrizioa • Ugalketa 10. Koordinazio sistema animalietan • Estimulua • Nerbio sistema • Sistema endokrinoa 11. Ugalketa animalietan

3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko dira
- Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gaiei buruz. Testu-liburuaz gain, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebistetatik ateratako artikuluak banatuko zaizkie gaiari dagokionean.
- Zenbait kasutan ikasleak bertan bilatu beharko dute pertinentea den informazioa, teknologia berriak erabiliz
- Hizkuntza zientifikoa ezagutu eta modu egokian erabiltzea euskarri eta errekurso desberdinak landuko dira
- Azalpen eskemak eraikitzea landuko da, kontzeptuak, ereduak eta teoriak uztartuz, ezagupen horiek ondo barneratu eta eguneroko bizitzan erabili ahal izateko.



- Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan.
- Bakarkako eta taldeko lan praktikoak egin beharko dituzte ikasleek.

4

BALIABIDEAK

Testu liburua: BIOLOGIA eta GEOLOGIA. Batxilergoa 1

ARGITALETXEA:**Anaya- Haritza**

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK****EBALUAZIO TRESNAK:**

Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitzean gutxienez bi azterketa egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko. Gainera, ebaluazio partzial bakoitzean denbora-epe horretan egindako lan praktikoa entregatzea beharrezkoa izango da eta baloratuko da.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- Ikasleak hasieran aipatutako helburuak lortu dituen ala ez baloratuko da. Modu errazean zenbait fenomeno zergatia azaltzeko gai izan behar du: Lurra eta biziaren eboluzioa, bizidunen egitura eta funtzioen arteko erlazioa, bizidunen ugalketa, fotosintesia eta arnasketa,...
- Hainbat metodoren bidez lortutako datu biologiko eta geologikoak interpretatzen jakin behar du.
- Eguneroko gertakizunei azalpen koherenteak emateko gaitasuna azaldu behar du.
- Prozesu geologiko zein biologikoak identifikatzen eta interpretatzen jakin behar du.
- Egunerokotasunean berrietan ateratako biologia et geologiako informazioa ulertzea iritsi behar du.
- Biologian eta Geologian izan diren ideia eta teoriaren aldaketek arrazoiak ulertu eta azaltzeko gai izan behar du. Arazoak planteatzeko eta ebazteko metodologia zientifikoa erabiltzeko gaitasuna azaldu behar du.
- Elkarlanerako jarrera egokia eta kooperazio-ahalmena azaldu behar du.
- Klasean jarrera parte-hartzailea azaldu behar du.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazio partzial bakoitzean egindako azterketen nota eta lan praktikoetako nota kontuan hartuko da. Kasu bakoitzean, irakasleak adieraziko du kalifikazio osoaren zenbateko ehunekoa dagokion ebaluazioan landutako atal bakoitzari
- Azterketa eta egin beharreko lan guztietan gutxienezko kalifikazioa 4a izango da batz bestekoa egin ahal izateko. Eta egindako bi azterketen batz besteko 5etik gora izan behar du.
- Entregatu beharreko lanak entregatu ezean ezingo da batz bestekoa egin.
- Orokorrean, kalifikazioaren %10 inguru jarrerazko notari dagokio.



6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Ebaluazio bakoitzaren ondoren errekupeazio-azterketa bat izango da.

Ikasturte bukaeran aurretik gaititu gabeko zatiak gaititzeko aukera emango zaie ikasleei eta, baita kurtsoko nota globala igotzeko aukera ere.

Ebaluazioko edo kurtsoko nota igo nahiko balu, azterketa orokorra egin beharko du, eta azterketa horretan ateratako nota izango da azken nota.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379		2019 - 2020	
ARLOA	MARRAZKETA TEKNIKO A I						DATA		2020-09-07	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X BATX 2

1 ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA

1. **Artean, Teknikan eta Historian** Marrazketa Teknikoak izan duen garrantziaz jabetzea, lengoaia objektibo eta unibertsal gisa.
2. **Errealitatea ezagutzeko eta adierazteko** Marrazketa Teknikoak eskaintzen dituen tresnak erabiltzeko gai izatea.
3. Marrazketa Teknikoari dagozkion **terminologia eta lexiko bereziak** ezagutzea.
4. **Ebazpen grafikoak zehatz, argi eta objektibotasunez** adieraztea ahalbidetuko dioten trebetasun eta abileziak garatzea.
5. **Geometria metrikoaren oinarriak** ezagutzea eta ulertzea.
6. **Problema geometrikoak espazioan eta hiru dimentsioko formak planoan** adierazteko dauden sistemak aintzat hartu eta erabiltzea.
7. **Krokisen, zirriborroen eta apunteen bidez** formak ulertu eta irudikatzea, UNE eta ISO arauari jarraituz.
8. **Normalizazioa** konbentzionalismo egoki gisa baloratzea, produkzioa eta komunikazio era sinplifikatzeko.
9. **Errepresentazioaren araudia**, berezitasunak, sinboloak eta hitzarmenak ezagutzea, behar bezala erabiltzeko.
10. Eraikuntza geometrikoak **bakarka eta taldean** planifikatzea, **prozesua eta emaitza** aztertuz eta ebaluazio kritikoa eginez.
11. Marrazteko eta diseinatzeko **teknologia eta programak** ezagutu eta lana errazten digun neurrian erabiltzen jakitea.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. EBALUAZIOA		2. EBALUAZIOA		3. EBALUAZIOA	
1. Marrazketara eta Geometriara sarrera.		6. Proportzionaltasuna eta Antzekotasuna: Simetria, Talesen teorema, Eskalak Altueraren teorema, Baliokidetasuna.		13. Sistema axonometrikoa: Ortogonal eta Zeiharra, Txikiagotze koefizienteak, Perspektibazko eraikuntza.	
2. Oinarritzko trazaketak planoan: Zuzenak, Angeluak, Zirkunferentziak, Leku geometrikoak, Arku kapaza, Translazioa, Homotezia.		7. Kurba konikoak: Elipsea, Parabola, Hiperbola.		14. Sistema diedrikoa: Puntua, Zuzena, Planoa.	
3. Poligonoak: Sailkapena, Erlazioak, Eraikuntza.		8. Errepresentazio sistemen funtsak eta helburuak.		15. Sistema konikoa: Aurrez-aurrekoa, Zeiharra, Marrazketa prozedurak.	
4. Kurba teknikoak: Obaloak, oboideak eta kiribildurak.		9. Krokisen prestaketa.			
5. Ukitzaileak eta Loturak. Problema ebaztea.		10. Bista diedrikoak.			
		11. Akotazioa: Arauak, Sinbologia.			
		12. Normalizazioa: Akaberak, Ebakidurak, Epaiak, UNE, ISO.			

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
❖	Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu nahi du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak.
❖	Garrantzia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek , Marrazketa Teknikoaren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute.
❖	Elkarlana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko.
❖	Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira: ▪ Irakasleak gaiak azalduko ditu, ikasle guztiak uler ditzaten. ▪ Ikasleek ariketak egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleari itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkio ikasleari. ▪ Ikasleek gai batzuk prestatuko dituzte eta besteen aurrean azaldu. Gaiak bereganatu, edukiak garrantziaren arabera sailkatu eta hiztegia barnera dezaten. ▪ Aplikazio-ekintzak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten.
4	BALIABIDEAK
	APUNTEAK: Arloaren euskarri nagusia, liburu ezberdinetatik jasotako apuntes oinarritua dago . Testu liburu bat baino gehiago erabili dira apuntes osatzeko. Horien artean: <i>Marrazketa Geometrikoa</i> eta <i>Geometria Deskribatzailea</i> barne, <i>Marrazketa Sistema diedrikoa</i> (F. Javier Rodríguez de Abajo eta Roberto Galarra), <i>Logse Batxilergoa-Marrazketa Teknikoa</i> (Anaya), <i>Marrazketa Teknikoa</i> (Erein), daude.
	INTERNET: Arbela digitalaren laguntzaz interneten dauden baliabideak (web-orriak, animazioak, bideoak) gaietan sakontzeko erabiliko dira.
	ORDENAGAILUA: Software ezberdinak erabiliko dira marrazketarako teknologia ezagutu eta erabiltzeko.
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: • Ingurunean eta arte-adierazpenetan dauden geometriako elementuak identifikatzea. • Irakasgaiari dagozkion lexiko eta terminologia, tresnak eta prozedurak erabiltzen jakitea. • Ariketetan eta lan-proiektuetan akabera ona eta aurkezpen egokia lortzea. • Formak konfiguratzeak aztertzea eta grafikoki ebaztea, oinarritzko eraikuntza geometrikoak erabiliz. • Adierazpide-sistema garrantzitsuenek komunikaziorako eta analisirako dituzten aukerak bereiztea • Sistema diedrikoa bolumenak eta piezak bisten bidez zehazten jakitea. • Sistema axonometrikoetan (ortogonal eta zeiharrak) inguruan dauden hiru dimentsioko objektuak adieraztea. • Errealitatea adierazteko perspektiba konikoak ematen dituen baliabideak ezagutzea eta irudiak marrazten jakitea. • Industriako eta arkitekturako (eraikuntza) pieza eta elementuak grafikoki definitzea, bistei, ebakidurei, sekzioei, hausturei eta akotazioari dagozkien arauak eta modalitate bakoitzeko ikur edo sinboloak aplikatuz. • Krokisak, zirriborroak eta apuntes erabiltzea lan-prozesuetan aukerak eta soluzioak bilatzeko. • Informatikako baliabideak adierazpide-tresna egokitzat hartzea eta ariketak burutzea.
	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK: • Ebaluazio bakoitzean azterketa bat egingo dugu gutxienez. Ebaluazio notaren % 60 izango da. • Ikasleei jasotako lanak kalifikatu egingo dira, eta notaren %30 balioko dute. • Jarrerak edo lanerako prestutasunak notaren %10 balioko du. • EBALUAZIOKO NOTA: EBALUAZIOA GAINDITZEKO ATAL GUZTIAK GAINDITU BEHARRA DAGO NAHITAEZ, ONDOREN BAKARRIK EGINGO DA BATEZ BESTEKOA. • JUSTIFIKATU GABEKO HUTSUNEAK JARRERA DESEGOKIA DIRA ETA KALIFIKAZIOAN ERAGINA DUTE (Hutsuneak 3 = Jarrera kalifikazioa 0) • NOTA IGOTZEKO AUKERA IKASTURTE BUKAERAKO OHIKO DEIALDIAN SOILIK IZANGO DA, IKASTURTE OSOKO EDUKIAK FROGATUZ. • AZKEN NOTA HIRU EBALUAZIOEN BATAZ BESTEKOA IZANGO DA.
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	• Ebaluazio oro berreskurapen azterketa bat egingo da.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA						KODEA: 013379			2018-2019			
ARLOA	FISIKA ETA KIMIKA								DATA 2019-09-01				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	x	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1.-Gaiari dagozkion kontzeptu, lege, teoria eta eredu nagusiak lotuz, eskemak egitea, zientziaren adar horien garapenaren ikuspegi orokorra izateko eta adar horien arloko sistema eta aldaketa nagusiak azaltzeko, bai testuinguru zientifikoan, bai eguneroko bizitzako testuingurutan. 2.-Problema ebaztea, zientziaren estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiliz, zientziaren edo gizartearen interesa pizten duten eguneroko egoerak, kritikoki lantzeko eta zientzia lana proben eta sormenaren bidez egiten dela ohartzeko. 3.-Fisika eta Kimika etengabe eraikitzen ari den jardura dela ohartzea, kontrako hipotesiak eta teoriak konparatuz, balioetsiz zer nolako erakarpengaitan dioten eztabaida zientifikoen giza ezagunaren bilakaerari, pentsamolde kritikoa garatzeko, estimatzeko zer nolako garrantzia duen zientziaren kultura gisa. 4.-Informazio zientifikoa zuzen interpretatzea eta adieraztea.	

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
	1.- MATERIAREN TEORIA ATOMIKO-MOLEKULARRA: Kimikaren oinarrizko legeak. Teoria atomiko molekularra. Substantzia kantitatea:Mol. Gasen legeak. Konposizio ehundarra,formula enpirikoa eta molekularra.Disoluzioak. 2.- ATOMOA ETA HAREN LOTURAK: Eredu atomikoak. Sistema Periodikoa. Lotura motak. Konposatu ez-organikoen formulazioa eta nomenklatura. 3. TRANSFORMAZIO KIMIKOEN AZTERKETA: Erreakzio kimikoak. Erreakzio kimikoen energia.		4.- KARBONOAREN KIMIKA. Karbonoaren konposatuen formulazioa eta nomenklatura. 5.- ZINEMATIKA. Higidura zuzen uniformea, Higidura zuzen uniformeki azeleratua. Higidura zirkularra.		6.- DINAMIKA. Indarrak. Dinamikaren legeak. Grabitazio unibertsalaren legea 7.- ENERGIA. Lana eta energia. 8.-ELEKTRIZITATEA. Coulomben legea. Korronte elektrikoa.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Irakasleak testu liburua jarraituz, azalpenak emango ditu. Ikasleei agindutako ariketa eta problema talde osoaren aurrean zuzenduko ditu. Ikasleak irakaslearen azalpenak jarraituko ditu, eduki ditzaken zalantzak azalpenaren amaieran talde osoaren aurrean galdetzeko.	

4	BALIABIDEAK
TESTU LIBURUA: FISIKA ETA KIMIKA 1. BATXILERGOA. ARGITALETXEA: Giltza-Edebé MOODLE: Apunteak, ariketak, simulazioak eta bideoak.	

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILA Hezkuntzako Ikuskaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E
INVESTIGACIÓN Delegación de Educación



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
	EBALUAZIO IRIZPIDEAK: -Ikasleak,prozesu kimikoen lege ponderalak, Daltonen teoria kimikoaren eta Avogadroren hipotesiaren bidez ea azaltzen dituen. -Sustantzia kantitate magnitudearen eta bere unitatearen(mola) esanahia ea interpretatzen dituen. -Zuzen erabiltzen eta erlazionatzen dituen mol,masa atomiko eta masa molekular kontzeptuak. -Sustantzia batzuk beste sustantzietan bihurtzeko prozesuak,erreakzio kimikoak direla interpretatzen dituen. -Formula enpirikoak eta molekularrak zehazten dituen. -Substantzien propietate fisikoak azaltzea egitura eta lotura kimiko motaren arabera. -Eredu atomikoen izatea eta bilakaera justifikatzen dituen. -Atomoen konfigurazio elektronikoa osatzen duen. -Elementu kimikoen taula periodikoaren funtsa justifikatzen duen. -Lotura moten ezaugarriak zehazten dituen. -Sustantzia jakin baten lotura mota bere propietate fisiko eta kimikoekin erlazionatzen dituen. -Prozesu kimikoetan parte hartzen duten produktuen eta erreaktiboaren sustantzia kantitateei buruz,problema ebazten dituen. -Ea identifikatzen duen erreakzio bateko erreaktibo mugatzailea. -Karbono atomoaren lotura guztiak egitura elektronikorekin erlazionatzen dituen. -Izendatzen eta formulatzen dituen hidrokarburoak IUPACen arauen arabera. -Aztertutako hainbat higidura motari buruzko problema ebazten dituen. -Adierazpen bektoriala erabiltzen duen. -Higiduren ekuazioak interpretatzen dituen. -Ea interpretatzen duen indarraren ikuskera newtondarra, gorputzen azelerazioarekiko elkarrekintza eta arrazoiak den aldetik,eta ea senezko ebidentziak eztabaidatzen dituen. -Higidura kantitatearen kontserbazio printzipioari buruzko problema ebazten dituen. -Lan mekanikoa,energia mekanikoa eta beraien arteko erlazioei buruzko problema ebazten dituen. -Identifikatzen,erlazionatzen eta irudikatzen dituen zirkuitu elektrikoak eta haien elementuak. -Zirkuitu elektriko baten berezko magnitudeei buruzko ariketak eta gaiak ea ebazten dituen. KALIFIKAZIO IRIZPIDEA Ebaluazioan zehar bi azterketa idatzi egingo dira. Ebaluazioko nota, bi azterketa horietan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da. Batez bestekoa egin ahal izateko, azterketa horietan 4koa lortu beharko da, gutxienez. Kurtsoko nota hiru ebaluazioetan lortutako kalifikazioen batez bestekoa izango da. EBALUAZTEKO TRESNAK: Idatzizko azterketetan kontuan izango dira eta baloratu ere : azalpenen argitasuna eta koherentzia, kontzeptuen zehaztasuna, nomenklatura eta formulazioa eta azterketaren aurkezpen egokia (txukuntasuna, garbitasuna).
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
	Ebaluazioa gainditu ez duten ikasleek, baita nota hobetu nahi dutenek, berreskurapen azterketa egin beharko dute.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA							KODEA: 013379			2019 - 2020		
ARLOA	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK I								DATA		2019-09-05		
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA											
1.	Informatikaren erabilerak gizartean eta norbanakoengan sorturiko inplikazioak jarrera gogoetatsu eta kritikoz baloratzea, informazioak gaur egungo gizartean betetzen duen zeregina aztertuz.											
2.	Ordenagailu pertsonal baten ingurune fisikoa osatzen duten elementuak ikuspegi funtzionaltik identifikatzea.											
3.	Ordenagailu pertsonal baten ingurune fisikoaren eta ingurune logikoaren mantentze-egoerak azken erabiltzailearen ikuspegitik ebaztea.											
4.	Erabilpen orokorra duten aplikazioen oinarriko gaitasunak menperatu, eta gaitasun sakonagoak aztertu autonomia osoz, ikasketa horiek eguneroko lanean eta bizitzan erabiliz (etxean, ikasketetan...).											
5.	Informatika-aplikazio berriak jakin-minez eta interesez aztertu, baita sortzen diren gatazka-egoerak edo akatsak ere.											
6.	Informatikaren erabiltzaile baten lanaren, jarreraren eta erantzukizunen antolamendu-alderdiak ezagutu, bai erabiltzaile banako bezala edo informatika-sareen erabiltzaile bezala ere.											
7.	Informatika oker erabiltzeak gizabanakoarengan ekar ditzakeen ondorioak jarrera erreflexibo batekin eta kritiko batekin aztertu.											
8.	Informatikarekin lotutako lanbideak, Zientzia Formal nahiz Zientzia Aplikatu gisa identifikatzea.											

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA							
	1. ebaluazioa			2. ebaluazioa			3. ebaluazioa	
4	1. Ordenagailuaren Hardwarea.		5	7. Ordenagailuaren Softwarea.		3	12. Informazioaren gizartea eta teknologia berriak.	
2	2. Internet.			➤ Software askea				
10	3. Programazioaren oinarria: algoritmoak.		14	8. Mugikorrentzat aplikazioak sortzeko programa: App Inventor.		25	13. Proiektua: mugikorrentzat aplikazio bat sortu.	
10	4. Grafiko bektorialak lantzeko programak: Inkscape.		8	9. Grafiko askeen sortzaileak eta irudien tratamendua: Gimp.		2	14. Kalkulu-orriak: Excel.	
3	5. Internet bidez aplikazio ofimatikoak: Google Drive.		2	10. Testu-prozesadoreak: Word.		3	15. Audio digitala lantzeko programak: Audacity.	
2	6. Irakaskuntza kudeatzeko sistemak: Moodle.		2	11. Aurkezpenak egiteko aplikazioak: PowerPoint.				

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Erabiltzen den metodologiak, ikasleen autonomia sustatu beharko du. Horretarako funtsezkoak dira ikerkuntza eta saiakuntza estrategiak; estrategia hauetan garrantzia bizia izango dute jakintzagaiaren berezko prozedurek, IKTren ikaskuntza ulerkorra eta adierazgarria ahalbidetuko baitute. Era berean talde-lana bultzatuko da (ideien trukaketa, lankidetzak, eztabaidak, laguntza, eta abar), jarrera parte hartzaileak eta elkarrenganako errespetuzko jarrerak garatzeko. Helburu hauek lortzeko honako estrategiak erabiliko dira: • Ikasleek gaien azalpenak eta teoria eskuragarri izango dituzte, beraien kabuz lantzeko eta ikasteko. • Irakasleak puntu zailenak edo zalantza gehiago sortu dituztenak azalduko ditu. • Ikasleek zenbait ariketa egingo dituzte gaiaren zehaztasunak ulertzeko eta barneratzeko. Hauetako zenbait lan irakasleak zuzenduko ditu eta ikasleak itzuli. Beharrezkoa izanez gero lanak berriro eginaraziko zaizkio ikasleak. • Talde-lanak proposatuko dira, gaietan eta ariketetan ikasi dutena errealitatearekin zerikusia duten proiektuetan erabil ditzaten.	



4	BALIABIDEAK
• Ordenagailu gela • Sarea • Internetarako konexioa • Proiektorea	
5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
Ebaluazio-irizpideak: • IKTak garatu diren gizarte testuingurua identifikatzea eta gaur egun Informatikaren erabilgarritasun eta inplikazioak aztertzea. • Ordenagailu pertsonal baten hardwarearen mantenurako oinarritzko eragiketak burutzea. • Informazioa bilatzen eta biltzen interesatuz parte hartzea eta lanak egin eta azaltzerakoan tresna egokiak hautatzea. • Sarrerako periferikoak zalutasunez erabiltzea eta ordenagailuarekiko elkarrekintza lengoia zuzen interpretatzea. • Ordenagailu baten osagai funtzionalak eta ordenagailuarekiko elkarrekintzarako ezaugarri fisikoak ezagutzea. • Asmo orokorreko aplikazioak zalutasunez identifikatzea eta erabiltzea, sorturiko objektuak elkarlotzea. • Programa kontzeptua eta ordenagailu batean informazioaren errepresentazio alderdiak ulertzea. • Sare telematikoen informazio iturrien erabilera probetxuzko eta kritiko bat egiteko gaitasuna eskuratzea. • Lan-proiektu bat garatzea proiektuaren helburuen arabera, eta prozedura egokia ondo zehaztea. • Ariketetan eta lan-proiektuetan akabera ona eta aurkezpen egokia lortzea. Kalifikazio-irizpideak: • Ikasleek egingo dituzten lanak eta proiektuak klase aurrean aurkeztuko dira eta bere gelakideek kalifikatuko dituzte. • 1. eta 2. ebaluazioan emandako gaien kontrola egingo dute eta kalifikaziorako balio izango du. • Ikasleek klasean egindako ariketak eta jarrera ere kalifikatu egingo dira. • Irakasleak talde-lanak eta proiektuak ere kalifikatu egingo ditu. • Azken nota ebaluazioetan izan dituzten noten batez bestekoa izango da. Ohiko eta ezohiko ebaluaketak: • Ohiko ebaluaketan klasean egindako ariketak eta proiektuak kontuan hartuko dira. • Ezohiko ebaluaketan lan bat egiteko eskatuko zaie.	
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
• 1. eta 2. ebaluazioetan ez dago errekupeziarik. 3. ebaluazioaren proiektuak jasotzen ditu kurtsoan emango ditugun gaiak, beraz ebaluazio jarraitua dela uler dezakegu. Halere, azken nota, kalifikazio-irizpideetan aipatu den bezala, ebaluazioen noten batez bestekoa izango da. • 3. ebaluazioa errekupeatzeko lan edo azterketa bat egin beharko dute.	



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEA REN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA					KODEA: 013379	2019-20
ARLOA	FRANTSESA					DATA	2019-9-24
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	BATX 1	X	BATX 2

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
- Hizkuntzaren hainbat erabilera-eremutako ahozko diskurtso eta diskurtso idatzi ulertzea. - Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea. - Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez. - Informazio-iturriak eta –teknologiak autonomiarekin erabiltzea informazio bilatzeko. - Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio- ezagutzak eta –estrategiak erabiltzea eta norberaren ikasprozesuen gainean gogoeta egitea.	

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
	Unité 1: Un air de famille		Unité 4: Parcours santé		Unité 7: L'air du temps
	Unité 2: La vie des autres		Unité 5: Allez! Au travail!		Unité 8: Bon voyage
	Unité 3: C'est bien chez vous		Unité 6: Temps libre		Unité 9: Vous voulez mon avis?

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
Ahozko komunikazioa lantzeko gai bakoitzean dauden entzumenezko jarduerak egin. Ulertzeko estrategiak erabiltzen saiatuko dira. Esparru ezberdinetako testuen informazio nagusia ulertu eta erabiliko dira. Idatzizko komunikazioan hainbat eratako testuak landuko dira ikasleen konpetentzia linguistikoa hobetzeko. Testu idatzi koherenteak egiteko behar diren tresnak landuko dira. Honetarako hizkuntzari buruzko gogoeta egingo da.	

4	BALIABIDEAK
Filmak eta abestiak frantsesez. CD, DVD eta Internet.	
Testu liburua: Taxi 2 ARGITALETXEA: Hachette	

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK
---	---

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK:**

- Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea eta interpretatzea.
- Ahozko harremanetan gogotsu parte hartzea, ikasteko eta ikasgelako gizarte-harremanak lantzeko.
- Testu idatzietan ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea.
- Testu idatziak ekoiztea, norberaren intereseakoak eta gaur egungoak.
- Hizkuntzaren oinarrizko arauak testuetan aplikatzea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Egiten diren lan guztien batez bestekoak osatuko du ebaluazio bakoitzaren nota.
- Gaiari buruz duten jarrera: aktiboa, parte hartzea, oso garrantzitsua da eta horrela baloratuko da.

EBALUATZEKO TRESNAK:

- Unitate bakoitza idatzizko froga baten bidez ebaluatuko da.
- Gaiaren arabera zehaztuko dira ahozko aurkezpen eta frogak.
- Gaiarekiko lehen aipatutako jarrera aktiboa kontuan hartuko da.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Gaikitzen ez diren kontrol partzialak ebaluaketa azterketan gaikitze aukera emango da. Hau ez bada gaikitzen, hurrengo ebaluaketaren bidez gaikitze aukera izango da (1. eta 2. ebaluazioetan). 3. ebaluazioa suspenditzekotan, azterketa finalera aurkeztu beharko du ikasleak.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA								KODEA: 13379			2019-20	
ARLOA	KULTURA ZIENTIFIKOA									DATA 2019-09-25			
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	- Gaur-egun garrantzitsuak diren gai zientifiko eta teknologikoen inguruan informazioa bilatzea, interpretatzea, ulertzea, adieraztea, argudiatzea, eztabaidatzea eta ebaluatzea, beharrezko terminologia zientifikoa eta iturria fidagarriak erabiliz. - Ikusitako gaien inguruan eta aurkeztu diren gai berrien inguruan iritzi kritikoa izateko gaitasuna lortzea, iritzi propioen bidea jarraituz eta proposamen, jarrera zientifiko eta balio sozialak erabiliz. - Kreatibitatea, kuriositatea eta antiodogmatismoa bultzatzea. - Tokiko eta arazo orokorrak konpontzeko eta garapen jasangarri bat lortzeko beharrezkoa den erabaki-hartze prozesuan parte hartzeko, jakintza-zientifikoaren garrantzia ezagutzea eta hau erabiltzea. - Arazoak zientifikoak aldiro eraikiz doazela ohartzea eta ideia berri horiek identifikatzea, planteatzea eta ebaztea, banakako edo taldekako ikerlanak burutuz.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	EDUKI ESPEZIFIKOAK 1. Zer da zientzia 2. Gure planeta: Lurra 3. Biziaren eta gizakiaren jatorria ZEHARKAKO PROZEDURAK Metodologia zientifikoa: adibide bideoa	EDUKI ESPEZIFIKOAK 4. Gehiago bizi, hobeki bizi 5. Iraultza genetikoak ZEHARKAKO PROZEDURAK Metodologia zientifikoa: informazio zientifikoa aurkeztu: infografia	EDUKI ESPEZIFIKOAK 6. Baliabideen kudeaketa 7. Internet 8. Teknologia berriak. ZEHARKAKO PROZEDURAK Metodologia zientifikoa

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	- Tokiko eta arazo orokorrak konpontzeko eta garapen jasangarri bat lortzeko ikerkuntzak duen garrantzia eta ikerlanak burutzeko beharrezkoak diren metodologiak eta baliabideak erakutsiko zaizkie ikasleei, idatziz zein ahoz. Metodologia eta baliabide hauek urte osoan garatu eta aurkeztu behar dituzte ikerlan desberdinen bidez. - Gai espezifiko bakoitzaren hasieran ikasleek dakitena aztertzeko eta ikasleengan interesa pizteko galdekizunak pasako dira. - Ikasleei informazio idatzia apunteen bidez, zein ahozko informazioa aurkezpenen bidez, emango zaie gai espezifiko buri. - Alor guztietan, eta euskarri moduan ikus-entzuteko materiala ere erabiliko da. - Bibliografia edota errebista zientifikotatik ateratako artikulak banatuko zaizkie gaiari dagokionean. Ikasleek ere informazioa bilatzen, identifikatzen eta hautatzen ikasi beharko dute. - Ikerketa, hausnarketa eta ekoizpena nagusiak izango dira gaian, internet sareak eskaintzen duen aukeraz baliatuz. - Ikasle taldeek informazioa ordenatu eta azaldu beharko dute, aurkezpenen bidez. Gaiei eta aurkezpenei buruz eztabaidak sortuko dira. - Teknologia berriak ematen dituzten baliabideak erabiliko dira gai ezberdinak lantzeko, bai irakas prozesuan baita ikas prozesuan ere.

4	BALIABIDEAK
	Testu liburua: ez dago



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK EBALUAZIO IRIZPIDEAK: Gutxieneko helburuak lortu diren neurtzea izango da ebaluazio irizpidea: A) Gaurko aurrerapen zientifiko eta teknologikoei buruz informazioa bilatzeko, erabiltzeko, hausnartzeko eta iritzi kritikoa izateko gaitasunak neurtuko dira. B) Ikaslearen jakin-nahia eta jarrera baloratuko dira. C) Eguneroko bizitzan planteatzen diren arazo zientifikoen garrantzia eta oinarria ulertzeko ikaslea gai den neurtuko da. D) Ikaslea arazo hauek identifikatzeko planteatzeko eta ebazteko gai den ebaluatuko da. KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Kalifikazioaren gehiengoa prozedurazko ebaluazioari dagokio. Prozedurazko lanak direnak entregatu beharrekoak izango dira kurtsoaren batz bestekoa egin ahal izateko. Kontzeptuak edo edukiak-baliabideak eta jarrera ere neurtuko dira. EBALUAZIO-TRESNAK: Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Ebaluazio bakoitzean egindako banakako edo taldekako lanak ebaluatuko dira. Jarrera kontuan hartuko da. Gainera, urte guztian zehar egindako taldekako ikerketa lanak garrantzia handia izango dute.
6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA Ebaluazio bakoitzean egindako lanak berregiteko eta hobetzeko aukera izango du ikasleak ebaluazio-epearen barne. Ikasturte bukaeran kurtsoko nota globala hobetzeko, eta gainditu ez duenak gainditzeko, lan osagarri baten proposamena egingo zaie.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA								KODEA: 013379			2018-19	
ARLOA	ANATOMIA APLIKATUA									DATA 2019-09-01			
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
- Giza gorputza eta haren funtzionamendua ezagutuz eguneroko osasun arazoei buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna lortzea. - Giza gorputzaren batasun estrukturala eta funtzionala interpretatzea, haren antolaketa maila eta bizi funtzio nagusiak identifikatuz. - Arazoak identifikatzeko, planteatzeko eta ebazteko, bai indibidualki eta bai taldean, autonomiaz, inbestigazio-lanak egiteko trebetasuna lortzea. - Lan zientifikoetarako beharrezko diren jarrerak azaltzea, hala nola informazio-bilketa, kritika gaitasuna, ideia berriekiko irekitasuna eta talde-lanerako egokitasuna - Teknologia berrien erabilera trebatzea eta gaitasunak azaltzea giza anatomiaren ezagutzak aplikatuz. - Hizkuntza zientifikoa ezagutu eta modu egokian erabiltzea euskarri eta errekurso desberdinak erabiliz - Azalpen eskemak eraikitzea giza gorputza lege zientifikoak betetzen dituen egitura orokorra bezala azalduz eta kontzeptuak, ereduak eta teoriak uztartuz, ezagupen horiek bai eguneroko bizitzan, bai osasun arloan erabili ahal izateko. - Anatomiaren izaera zientifikoa ezagutuz, norberaren eta gizartearen garapenerako duen garrantziaz jabetzeko gaitasuna lortzea. Giza ezagupenaren eboluzioan eztabaida zientifikoek duten garrantziaz jabetu, pentsaera kritikoa garatu ahal izateko eta zientziak pertsonen garapenean duen garrantzia baloratzeko.	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	- Giza gorputzaren antolaketa Zelulak Ehunak Organoak Sistemak-aparatuak - Lokomozio aparatua eta mugimendua Hezurak: Muskuluak: Mugimenduaren oinarri mekaniko eta zinetikoak Postura eta oreka - Digestio aparatua Mantenugaiak Dietak - Nutrizioa: energia lortzeko eta erabiltzeko sistemak Erlazionatutako gaixotasunak	- Metabolismoa Anabolismo / Katabolismoa Mantenugaiak lortu eta xurgatzea - Iraitz aparatua. Funtzionamendua Iraitz aparatuen gaixotasunak - Arnas aparatua Gasen trukaketa Gaixotasunak	- Zirkulazio aparatua Pultsua eta presio arterialaren neurketak Gaixotasunak - Koordinazio eta erregulazio Sistemak Nerbio-sistema Sistema endokrinoa Gaixotasunak - Ugal sistemak Sexu hormonak eta haien eragina



3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

- Gai bakoitzaren alderdi teorikoa eta praktikoa landuko ditugu. Aparatu eta sistemetan funtzionamendu orokorra ikasiko dugu; lehenengo anatomia aztertuko dugu eta ondoren alde fisiologikoa. Azkenik gaixotasun arruntenenak aztertuko dira.
- Metodologia aktiboa eta parte hartzailea izango da. Hasiera batean irakasleak azalpen teorikoak emango ditu aurkezpenen bidez. Idatzizko zein ahozko informazioa emango zaie ikasleei gaiei buruz. Testu-libururik ez dugu erabiliko. Apunteak, errebista zientifikoetatik edota beste egunkari eta errebistetatik ateratako artikulak, eta beste zenbait material banatuko zaizkie gaiari dagokionean.
- Ikasgaia menperatzen laguntzeko ariketa laburrak egingo dituzte eta eskemak egitera bideratuko zaie, ikas ohiturak menperatzeko
- Bakarkako eta taldeko txostenak egin beharko dituzte, irakasleak klasean esplikatutakoa aplikatuz.
- Lanak presentazio bidez gelakideei aurkeztuko diete, aurkezpenak egiteko programak erabiliz.
- Ikasleekin apunteak eta ikasgaiko bestelako baliabideak partekatzeko Moodle plataforma erabiliko dugu
- Irakasleak lana eta txostenak entregatzeko Moodle plataforma erabili beharko du
- Ikus-entzunezko materiala erabiliko dugu zenbait gaietan.
- Laborategian praktikak egingo ditugu, organoak ikusi eta ezagutzeko, odolaren analisisa egiteko eta sistemen funtzionamendua lantzeko
- Bakarkako eta taldeko lan praktikoak egin beharko dituzte ikasleek.

4

BALIABIDEAK

Testu libururik ez. Moodle: apunteak, mapak, simulazioak eta dokumentalak.

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK**

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK:**

- Ikasleak hasieran aipatutako helburuak lortu dituen ala ez baloratuko da. Modu errazean zenbait fenomenoengatik azaltzeko gai izan behar du: gorputz-egitura eta funtzioen arteko erlazioa, osasun arazo eta bizi-ohituren arteko erlazioa.
- Giza gorputzari eta fisiologiari lotutako hizkuntza zientifiko egokia eta zehatza erabiltzeko gaitasuna azaldu behar du.
- Gorputzaren egiturazko batasuna, funtzio fisiologikoak eta oinarrizko funtzioa identifikatzen jakitea
- Gaixotasunak prebenitzeko eta norberak patologien aurka bere burua zaintzeko oinarrizko ekintzak ezagutu behar ditu
- Giza gorputzaren jardura fisiko eta fisiologikoan parte hartzen duten sistemen eginkizuna identifikatzen jakin behar du
- Giza organismoaren sistema guztien arteko erlazioa ezagutu behar ditu
- Eguneroko elikadurak gorputzaren funtzionamenduan duen garrantziaz jabetzeaz jabetuko da
- Zientziaren prozedurarekin bat datozen abilezia esperimental errazak aplikatuko ditu
- Informazio eta komunikazio iturria egoki erabiltzea. Gaur egun medioetan azaltzen diren osasunari buruzko artikulua eta analisiak ulertzen eta analizatzen jakitea. Eguneroko gertakizunei azalpen koherenteak emateko gaitasuna azaldu behar du.
- Elkarlanerako jarrera egokia eta kooperazio-ahalmena azaldu behar du.
- Gelan jarrera aktiboa eta parte hartzailea azaldu behar du

EBALUAZIO TRESNAK:

- Hiru ebaluazio partzial egingo dira. Bakoitzean azterketak egingo dira eduki kontzeptualak nahiz prozedurazkoak baloratzeko.
- Ebaluazio partzial bakoitzean denbora-epe horretan egindako talde-lan praktikoak eta banakako lanak baloratuko dira.
- Klaseetan egindako aurkezpenak baloratuko dira
- Laborategian nahiz ikasgelan egindako lan praktikoak, eta egindako txostenak ere baloratuko dira.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- Ebaluazio partzial bakoitzean egindako azterketen nota eta lan praktikoetako nota kontuan hartuko da. Kasu bakoitzean, irakasleak adieraziko du kalifikazio osoaren zenbateko ehunekoa dagokion ebaluazioan landutako atal bakoitzari
- Egin beharreko azterketa eta entregatu beharreko lan eta txostenetan gutxienez 4 bat atera beharko da ebaluazioaren notaren batz bestekoa egiteko.
- Batz bestekoa egiteko, entregatu beharreko lanak aurkeztu ezean, ezingo da notarik jarri.
- Ikasleak klasean duen jarrera eta parte hartzea ere kontuan hartuko da batz bestekoa egiterakoan

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

- Ebaluazio bakoitzaren ondoren errehabilitazio-azterketa bat izango da.
- Ikasturte bukaeran aurretik gaitasun gabeko zatiak gaitasunzko aukera emango zaie ikasleei.
- Kurtsoaren nota globala igotzeko aukera emango zaie ikasleei kurtso osoan landutako gaien buruz egindako lan orokor baten bitartez.



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA								KODEA: 013379		2019-20	
ARLOA	INGELESA								DATA		2019.09.02	
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	x	BATX 2	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
1.- Hainbat erabilera-eremutako ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea. 2.- Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak erabiltzea. 3.- Atzerriko hizkuntzaren oinarriko ezaugarri sozialak eta kulturalak ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza eta kultura aniztasunarekiko jarrera positiboa eta begirunea erakusteko. 4.- Hizkuntzaren erabilera sozialak aztertzea, gogoeta eta kritika eginez. 5.- Hizkuntzak, hainbat jatorri, hizkuntza eta kulturatako pertsonen elkar komunikatzeko eta ulertzeko tresna direla positiboki balioestea. 6.- Atzerriko hizkuntzaren osagai soziolinguistiko, diskurtsibo eta gramatikalen ganean gogoeta egitea, kontzeptu eta prozedura egokiak erabiliz, ahozko testuak eta testu idatziak hobeto ulertzeko eta ekoizteko. 7.- Arte- eta literatura-testuak gero eta modu autonomoagoan irakurriz gozatzea, beste mundu eta kultura batzuk ezagutzeko, eta sentsibiltate estetikoak garatzeko. 8.- Teknologia eta informazio-iturriak autonomiarekin, espiritu kritikoarekin eta jarrera etikoarekin erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko. 9.- Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio ezagutzak eta estrategiak erabiltzea, hizkuntzen arteko transferentzia bultzatzeko eta ikasteko autonomia garatzeko.	

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
10	1 Making Contact	10	4 Urban Jungle	10	7 Go for Gold
10	2 The Techno Life	10	5 Soul Mates	10	8 Food for Thought
10 saio	3 Live and Learn	10 saio	6 Money Matters	saio	

Horiek dira landuko diren 8 unitate didaktikoak. Bakoitzean 5 multzo jorratuko dira:

1. Listening and Speaking. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea.

2. Reading and Writing. Diskurtsoen ugaritasuna: irakurtzea eta idaztea.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Reading	1. A Magazine Article	4. A Blog	7. A Magazine Article
	2. An Online Forum	5. A Short Story	8. A Magazine Article
	3. A Biography	6. Social Media Posts	
Writing	1. An Informal E-mail	4. An Opinion Essay	7. A Biography
	2. A For and Against Essay	5. A Narrative	8. A Formal Letter or E-mail
	3. A Report of an Event	6. An Informative Essay	



3. Use of English: Grammar Grammar and Vocabulary.

Hizkuntzari buruzko gogoeta.

	1.ebal.	2.ebal.	3.ebal.
Grammar	1. Present Simple and Present Continuous. Past Simple, Past Continuous and Past Perfect Simple. Present Perfect Simple / Continuous. 2. Future Simple, Be going to, Present Cont. as Future. Future Continuous, Future Perfect Simple. 3. Relative Clauses.	4. Modal Verbs. 5. Conditional and Time Clauses. 6. The Passive and the Causative.	7. Reported Speech 8. Special Structures. Grammar Review.
Vocabulary	1. Communication. Noun Suffixes. Adjective Suffixes. 2. Technology. Adjectives and Prepositions. Collocations 3. Education. Phrasal Verbs, Adjective Suffixes.	4. Cities. Phrasal Verbs. Negative Prefixes. 5. Relationships. British/US English. Verbs and Prepositions. 6. The economy. Gerunds and Infinitives. Common Expressions	7. Sport. Compound Nouns. Collocations. 8. Food. Idiomatic Expressions. Phrasal Verbs.

4. Literatura-diskurtsoa. 2. eta 3. hiruhilabeteetan errefortzatu egingo da, ikasleek ingelesez sortutako obra literario egokitu bat irakurriko dute-eta.

5. Civilization. Hizkuntzaren dimentsio soziala.

3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

Landuko diren unitate didaktiko guztiek egitura berbera dute:

- Sarrera-motibazio iharduerak
- Ikasketa prozesuaren garapenerako iharduerak: Vocabulary, Listening, Reading, Grammar and Speaking skills, Writing, Life skills.
- Ikas prozesua norberak garatzeko edo eta norberaren ebaluaziorako ariketak: Workbook exercises.

Irakasleak material digitala erabiliko du gelan euskarri bezala. Ikasgelak horretarako egokituta daude, proiektorea eta ordenagailua bertan izanik. Irakasleak etxean ere eskuragarri izango du material digital gehigarria. Irakasleek talde handian, txikian (2-4 ikasle) nahiz banaka egingo dute lan.

4 BALIABIDEAK

Advantage 1 metodoa:

- Student's book liburu fisikoan.
- Workbook liburu fisikoan.
- Gelarako material digitala eta ikasleen etxerako material digitala (argitaletxearen weborria)

Bi irakurgai, ikasleen hizkuntza mailara egokitutako ingeles literaturako bi obra.

Filmeak (bi urtean), abestiak eta beste.

TESTU LIBURUA: Advantage 1

ARGITALETXEA: Burlington Books



5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
Ebaluazio irizpideak: 1. Ahozko eta ikus-entzunezko testuak ulertzea. 2. Ahozko aurkezpenak egitea. 3. Ahozko harremanetan parte hartzea. 4. Testu idatzi konplexuetako ideia orokorra eta hainbat informazio ulertzea. 5. Plangintza bati jarraituz testu idatziak ekoiztea. 6. Hizkuntza-ezagutzak gogoeta eginez eta modu autonomoan identifikatzea eta erabiltzea, testuak interpretatu eta ekoiztean. 7. Literatura, gozatzeko eta ikasteko erabiltzea. 8. Hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan, eraginkortasunez eta espiritu kritikoarekin erabiltzea. 9. Hizkuntz atzerritarra ikasketa-tresna gisa erabiltzea eta hizkuntza eta kultura desberdinetako pertsonekin komunikatzeko ere bai. 10. Beste kulturetako elementu sozialak, linguistikoak eta kulturalak identifikatzea, errespetatzea, eta propioekin lotzea. 11. Hizkuntza guztietan burututako ikasprozesuen gainean gogoeta egitea. Bildumako ebaluazioan erabiliko diren tresnak anitzak izango dira: - Hiruhilabete bukaerako azterketa - Etxerako eguneroko lan idatziak edo ahozkoak: Workbookeko ariketak, Student's Bookeko ariketak edo bestelakoak. Gramatika iharduerak izan daitezke, idazlanak, informazio bilaketa, ahozkoen prestaketa... Etxerako lanak egin gabe etortzea penalizatu egingo da. - Irakurritako obra literarioari buruzko azterketatxoa (2. eta 3. hiruhilabeteen) - Gelako lan-produkzioa eta jarrera. Kalifikazio irizpideak: Ebaluazioa etengabea eta jarraia da. Horregatik lehen aipatutako tresna guztiak erabiliko dira. Ez da azterketen errekupeziarik izango: hurrengo azterketak aurrekoa gainditzeko aukera emango du. Ikasturte amaierako notan, aurreko ebaluazioetan lortutako notak kontuan hartuko dira, eta batez bestekoari erreparatuko zaio, kurtsoan zehar izandako lan-ekoizpena eta jarrera ahaztu gabe. Beraz, 3. ebaluazioko nota ezin da automatikoki bukaerako notarekin identifikatu. Irakaslearen esku geratzen da kurtso amaierako batez besteko notaren xedapena. Ikasturteko nota igo nahi izanez gero (aprobatua izanda, noski), 1. deialdiko azterketa finalera aurkezteko aukera du nahi duenak.	

6	BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA
Bildumako ebaluazioa jarraia edo etengabea izango da. 1. eta 2. trimestreko azterketan errekupeziarik ez da izango. Ebaluazio berriak aurreko azterketa gainditzeko aukera ematen du. Horregatik, azterketan sartuko diren edukinak ebaluazioz ebaluazio pilatzen doaz, eta 3. ebaluaziokoa azterketa global bat da. 3. ebaluazioko azterketa gainditzen ez duenak, 1. deialdiko azterketara aurkeztu beharko du, hau ere kurtso osokoa izanik.	

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Hezkuntzako Ikuskaritza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Inspección de Educación



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA								KODEA: 013379			2018-19	
ARLOA	MUNDUKO HISTORIA GARAIIKIDEA								DATA 2018/06/25				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		BATX 1	X	BATX 2		

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	1.- Mundu Garaikidearen Historian egon diren gertaerak, denboran eta espazioan ondo kokatzea eta analizatzea. Gertaera horien ondorioak egungo munduan baloratzea. 2.- Gure mundua eratzen duten prozesu ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak identifikatzea. 3.- Munduaren ikuspegi globala eta kritikoa garatzea. 4.- Informazio iturri desberdinak analizatzean, historiako kontzeptu eta terminoak modu egokian erabiltzea. 5.- Edukiak ahoz eta idatziz era egokian azaltzea. 6.- Datu historikoak, oinarri desberdinetatik abiatuta (denbora, kokapena, iraupena), biltzea gizartearen bilakaera historikoa ordenatzeko eta laburtzeko. 7.- Arazo sozialen aurrean jarrera demokratiko, tolerante eta parte hartzaileak oinarri, sentsibiltatea eta erantzukizuna garatzea. 8.- Gertaera historikoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak aztertzea, arrazoen aniztasuna ulertuta, historiaren ikuspegi globala arrazoitua eta kritikoa lortzea. 9.- Egungo gizartearen ikuspegi plurala eta integratzailea eraikitzea, barneko heterogeneotasuna baloratuta. 10.- Iturri desberdinen informazioa landuz gizateriaren bilakaeran ikuspegi propioa, globala eta kritikoa garatzea.

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
35	1. Erregimen Zaharra. 2. Industria–Iraultzak eta bere ondorio sozialak. 3. Erregimen Zaharraren krisia.	38	4. Mundua Europaren menpe. Lehen Mundu Gerra. 5. Gerra bitarteko garaia, II. Mundu Gerra eta bere ondorioak 6. Bi mundu desberdinen garapena eta liskarrak.	30	7. Deskolonizazioa eta Hirugarren Mundua. 8. Bloke komunistaren krisia. 9. Mundu kapitalista XX. mendearen bigarren erdian. 10. Gaur egungo mundua ikuspegi historikotik 11. Zientzia, Kultura eta gizartea.



3 IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA

.- Liburua oinarri bezala hartuta, irakasleak azalpenak emango ditu eta horiekin tartekatuta zenbait ariketa egingo dituzte ikasleek. Ariketa horiek gaiaren atal desberdinekin lotuta egongo dira eta mota askotakoak izango dira: testuak, grafikoak, irudiak, kartelak.

.- Liburuaz gain, gaia ulertzeko baliabide desberdinak erabiliko dira; pelikulak, dokumentalak, testuak, argazkiak etab.

4 BALIABIDEAK

Testu liburua: Mundu Garaikidearen Historia. Vicens Vives

ARGITALETXEA:

5 EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK, EBALUAZTZEKO TEKNIKA ETA TRESNAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

- .- Ea kokatzen dituen XIX., XX. eta XXI. mendeetako gertaera gehienak denboran eta espazioan.
- .- Ea munduko zenbait lekuetan aldi berean gertatutako prozesu historikoen arteko loturak ezartzen dituen.
- .- Ea ikasleak badakien laburbiltzen garai jakin batean esparru ezberdinetan gertatzen diren aldaketa garrantzitsuenak.
- .-Ea espazio-eta denbora- ardatzetan identifikatzen, aztertzen eta kokatzen dituen XIX., XX. Eta XXI. mendeetan gertatutako aldaketa garrantzitsuenak eta ea adierazten duen horiek izan dituzten eraginak.
- .-Ea konparatu eta ebaluatzen dituen sistema demokratikoaren eta diktatorialaren artean dauden desberdintasunak eskubide eta askatasun pertsonalei, jardura politikoari eta gizarte-harremanei dagokienez.
- .-Ea badakien erakunde demokratikoen sorreran eragina izan duten printzipioak eta bere garapenean eragina izan duten faktoreak identifikatzen eta analizatzen.
- .-Ea badakien zenbait iturrietatik datozen informazioak interpretatzen, aztertzen eta birlantzen.
- .-Ea zuzen erabiltzen dituen, azalpenetan eta lanetan Historiaren berezko lexikoa.
- .-Ea aintzat hartzen dituen gertaera, ekintza eta prozesu historikoetan esku hartzen duten motibazio pertsonalak eta kolektiboak.
- .-Ea egungo munduarekiko ikuspegi plurala eta integratzailea duen.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK:

- .- Ebaluazioko nota ikasleak egiten dituen lan guztien batura izango da; azterketak eta lanak. Guztietan minimoa atera beharko da batzaz-bestekoa egiteko.
- .-Nota igotzeko aukera egongo da ebaluazio guztietan.
- .- Ebaluazio azterketa baino lehen, azterketa bat egin daiteke gaia libratzeko. Honakoa gainditzea beharrezkoa izango da. Gainditu ezean, ebaluazio azterketan gai guztiak egin beharko dira.
- .- Ebaluazio bakoitzean, irakasleak eskatutako lanak entregatu beharko dira. Entregatu ezean, ebaluazioa azterketa gaindituta ere, ez da ebaluazioa gaindituko. Ariketa hauek irakasleak kontsideratzen duen ponderazioa izango du.

6 BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA

Gaia errekuiperatzeko, beste azterketa bat egin beharko da. Bertan irizpide berdinak hartuko dira oinarri.